Eskualdeko 50 musika taldetik gora entseatzeko espazio faltan

50 musika talde baino gehiago daude Aiaraldean. Genero eta estilo anitz jorratzen dituzte, eta ilusio eta gogoak soberan dituzte, baina entseatzeko espazioak ez horrenbeste. Lokal publikoen faltan (Urduñako Alondegia baita bakarra), eskaintza pribatua da nagusitzen ari dena. 10. or.

Sozioekonomia

Gometeguik albo batera utzi du lekualdatze espedientea 6. or.

Kirola

Eskualdean dagoen eskubaloi talde bakarra, Laudiokoa 12. or.

Iritziak:

JULEN ARZUAGA 2. or.
MIKEL KORMENZANA 6. or.
MIKEL AYLLON10. or.
JAVI ASPURU 11. or.
JULEN REKETA 13. or.
IRATI MARAÑON 16.or

aiaraldea

Aiaraldeko hamabostekaria
2014 /// Urriak 23 ///
OSTEGUNA
21. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Aiaraldeko mendi taldeak, mende erdiaren gailurra igo berri

Argazkia: **Txarlazo Mendi Taldea**

Basaurbeko araztegirako 1,25 milioi euro arriskuan Aldundiak ez badu bere ekarpena egiten

URA agentziak 1.250.000 euro erreserbatu ditu datorren urteko aurrekontuan Basaurbeko araztegia eraikitzeko behar diren lursailak desjabetzeko. Baina lur horiek erosteko diru-kopuru bikoitza behar da. Hala, Ur Partzuergoaren Gobernu Batzordeak Arabako Foru Aldundiarekin biltzea erabaki du, Aldundiari baitagokio diruaren beste zatia -beste hainbeste- jartzea. 3. or.

TURISMOA AIARALDEAN: 6000 bisitari udan. EAEn baino % 10 gehiago hazi da turismoa eskualdean 6 or.

ORDU ALDAKETA



Igande honetan -URRIAK 26- ordulariak ordu bat atzeratu beharko dira: 03:00etan 02:00ak izango dira.

_iritzia

Julen
Arzuaga Gumuzio
ABOKATUA

_Leihotik

Baskito

Azken bolada honetan egia, justizia, memoria terminoak darabilzkigu. Ez zauriak zabaltzeko, baizik eta zabalik daudenak osatzeko. Lasa eta Zabalaren desagerpenen 31. urteurren honetan pelikula estreinatu da haien herrian. Gordina, esplizitua gogorra... baino beharrezkoa. Estatuaren zitalkeriaren erakusleihoa. Bitartean, Europak Espainia kondenatu du euskaldunen tortura salaketak ez ikertzeagatik. Bosgarrenez. Asko izan dira gure eskualdean torturatutakoak, garai guztietakoak. Baina gogora etorri zait kasu bat. Agian ez larriena –nola jakin-, baina bai berezitasun bat duena.

Bixente Malaxetxebarria "Baskito" 1986ko urtarrilaren 20an atxilotu zuten Laudion egindako sarekada batean. "Gasteizko polizia-etxerako bidean, gidariaren ondokoak gidariari esan zion bideoa jartzeko, nik pentsatu nuen: 'Zelako kotxe modernoa!', baina hori izan zen euren konsigna golpeak hasteko". Kontaketak jarraitu egiten du: "Altubeko bidesarira iritsi ginen eta han gelditu zuten. Orraztu ninduten, ezer pasa ez balitz bezala. Gero kolpeak jaso zituen, eta barrabiletatik tiraka jarraitu zuten. Baita komisarian ere".

Mediku txostenetan oinarrituta, tortura salaketa jarri zuen Baskitok. Ohi ez bezala, ikerketan zehar lau torturatzaile errekonozitu zituen identifikazio errondan. Antonio Jose Rodriguez Cerdeiros polizia espainola kondenatu zuen Gasteizko Auzitegiak: bi hilabeteko arrastatzea ezarri zion. Baskitok sufritutakoaz egia jaso zuen. Justizia ez, sententzia arinak erakusten duen moduan. Bere memoria –beste askorena bezala- gordeko dugu.

Isusko
Ikaslea

Beharrezkoa dela diote, baina nire ustez ez da beharrezkoa. Ikasten dugunona izan behar da erabakia, eta ume txikien kasuan gurasoena edo ikasketa buruarena. Erlijioak azken ebaluaketarako balio izatea txarto iruditzen zait, ez dudalako uste matematikak bezainbesteko garrantzia duenik, adibidez.

Mertxe
Administrazio publikoko langilea

Indarrean dagoen konstituzioak dio estatu akonfesional batean bizi garela. Orduan zergatik inposatu behar dugu erlijioa ikastetxeetan? Ikastetxeek eta gurasoek erabaki beharko lukete. Eta ez luke notarako balio beharko, badaudelako beste hainbat materia oso garrantzitsuak direnak. Horiek dira notarako balio behar dutenak, eta ez erlijioa.

_GALDERA

LOMCE LEGEA
Zer iritzi duzu erlijioa eskoletan ematearen inguruan?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita.

BIDEOA WEB-GUNEAN

Jon
Irakaslea

Erlijioa hautazkoa izan beharko litzateke ikastetxeetan.

Katolikoek eskubidea dute halako ikasketak jasotzeko, eta ikastetxeetan landu beharko litzateke, baina baita existitzen diren beste erlijioak ere.

LOMCE legeak erlijioarekin egitea planteatzen duenaren aurka nago, lege erreforma horren aurka nago.

Lupe
Erretiratua

Badago erlijiosoa den jendea, eta baita ez dena ere. Nik, adibidez, jainkoan sinisten dut, baina ez lidake axolako eskoletan erlijioa irakastea. Baina gurasoen erabakia izan beharko litzateke. Helduagoak diren ikasleek, berriz, eurek hartu beharko lukete erabakia. Baina ez luke derrigorrezkoa izan beharko.

Pedro
Langilea

Nik badaukat erlijioa klasean ikastearen esperientzia, eta ez zait zuzena iruditzen. Apur bat inposatua dagoela uste dut, eta ez duela askorako balio. Herriak erabaki beharko luke zer ikasi, administrazioak inposatzea ez zait zuzena iruditzen. Maila politikoan alderdi guztien arteko adostasun bat egon beharko litzateke.

_gutunak

Berba egin dezagun *lagun*

Txetxu Urkijo (Berbalaguna)

Laudioko Euskararen Jaian geure hizkuntzaren aldeko ekarpen nabariak burutu dituen norbait omendua izaten da urtero. Aurtengo ekitaldian, irailaren 27an burutu zen hartan, Berbalagun ekimena aukeratua izan zen, hautaketa guztiz egokia iruditzen zaidana. Ni euskaldun berria nauzue. Zoritxarrez, ordea, euskaltegian hainbat ordu sartu nituen garai hartan, Berbalagun bezalako ekimenik ez zegoen eta faltan sumatu genuela zin egiten dizuet.

Edozein hizkuntza ikasteko bide bakarra, berau ahotan ibiltzea da inolako zalantzarik gabe. Bada, gure herri maitatu honetan euskaldun batekin aritzeko parada izatea nahiko gatza suertatzen denez, Berbalagun bezalako ekimen bat ezinbestekoa dugu. Beste alde batetik, noizean behin Laudioko kale zein tabernetan maite dugun hizkuntza entzuteko aukera izatea izugarria da. Gaur egun herrian hainbat talde ditugu ekimen honetan parte hartzen dutenak, geurean astero giro euskalduna bermatzen dutenak, ez da gutxi! Gainera, berbalagunen esku hartzen duen taldea guztiz autonomoa dela gogoratu beharra dago. Talde bakoitzak bere dinamika ezarriko du gustuko dituen zaletasunetan ibiltzeko, beti ere euskaldun oso bat partaide delarik. Helburua era jostagarrian mintzapraktika bultzatzea baita. Doan gainera!

Euskalduntze Jaia

Ander Diez Muguruza

Gau eskolak, ikastolari bultzada emateko taberna, bi urterik behin Euskal Herria korrikan jartzen zuen jaia, ikasleekin asteburu pasak... Askotarikoak izan ziren duela hamarkada gutxi batzuk gure herrian, mendeetan zehar bizirik zirauen hizkuntza bat ez galtzeko eta mugaz gaindi, gure NAN, EHNA edota pasaporte zen txartelaren iraungitze data luzatzeko aurrera eraman ziren ekimenak.

Ekimen horien atzean, baziren pertsonak ere; gau eskolako irakasle eta ikasleak, tabernan txandetan aritzen zirenak, furgonetako gidariak edota asteburu pasa ikasleekin zihoan irakasleak. Guzti hauek noski, anonimoak; Marta, Jesus, Andoni edo bigarren pisuko bizilaguna. Anonimo hauek ez dute kalerik jaso haien herrietan, publikoki gutxitan goraipatu da haien ezkutuko lana, baina, tartean, haiei esker dugu gaur 800 ikasle inguruko ikastola eta gure herri maitea apurka-apurka euskalduntzen joan izana, haiek, nagusitzen joan diren heinean.

Lerro apur hauek ez dute balioko pertsona horiek euskara putzutik ateratzeko egin zituztenak kontatzeko, bai ordea herriko eta eskualdeko gazteei gogorarazteko gu izan garela lan horren fruitua jaso dugunak eta gure esku dagoela etorriko direnek jasotzeko aukera izaten jarraitzea.

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Erredakzioa:
Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.com
agenda@aiaraldea.com
agurrak@aiaraldea.com
harremanak@aiaraldea.com
Publizitatea:
publizitatea@aiaraldea.com
Tlfnoa: 669 83 57 87
Web-gunea:
www.aiaraldea.com
Helbideak:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400 //
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470.
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54
Tel: 945 06 66 84
Tel: 688 848 152

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau ekonomikoki laguntzen duten enpresak:

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – 01468 Amurrio, Araba.
Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

G! Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · 01400 Laudio (Araba) Tel.: 946 721 200
Fax: 946 720 092 infor@jez.es

ausolan
Auzolagun
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Aiaraldea

Ur-partzuergoak hainbat azpiegitura hidrauliko kudeatzen ditu eskualdean, tartean Urduñako araztegia.

Basaurbeko araztegirako 1,25 milioi euro kolokan Aldundiaren ekarpenaren zain

ERREDAKZIOA I Aitor Martinez Ibarrola

URA Agentziak 1.250.000 euro jaso ditu 2015eko aurrekontuetan lursailak erosteko Basaurbeko araztegia egiteko asmoarekin (Areta eta Orozko artean). Baina lehen urrats horren finantzazioaren beste kopuru erdia Arabako Foru Aldundiari dagokio.

Lursailak erostea lehentasunezkoa da. Izan ere, Gobernu Zentralak hurrengo aurrekontuetan azpiegitura bi -Markijana eta Basaurbeko araztegiak- finantzatzeko eta eraikitzeko partida txertatu duela iragarri du. Hori gauzatzeko lehenik eta behin lursailak eskuratu behar dira. Horrela adierazi zien Ana Pastor Sustapen ministroak Euskko Jaurlaritzako ordezkariei Madrilen, erakundeen artean egindako bileran.

Horren aurrean eskualdean, Izorian egindako Ur Partzuergoaren Gobernu Batzordean, Javier de Andres Arabako Foru Aldundiko ahaldun nagusiarekin biltzea erabaki dute, Basaurbeko azpiegitura hidraulikoen berehalako finantzaketaren beharra dela eta. Lursailen erosketa Aldundiko Desjabetze Zerbitzuak tramitatzea da Gobernu Batzordearen nahia. Ekimen horretan eskualdeko udalek lagunduko dute bitartekari lanak egiten, baina gastua URAk eta AFAk egin behar dute.

Horretarako, aurrena, AFAren eta URAren arteko akordioa sinatzea eskatuko du Ur Partzuergoak. Izan ere, Plan Zuzentzailean erabaki bazen ere, egun proiektuek finantzaketarik gabe jarraitzen dute.

Akordioak Artziniegarako saneamenduaren konponbidea barnebiltzea nahi du.

Hitzordua De Andresekin

Ur Partzuergoan parte hartzen duten alkateek hitzordua eskatuko diote Javier de Andresi, Aldundiaren planak ezagutzeko. Aldundiak prestatutako aurrekontu proiektuan ez baitu jaso diru kopururik Aiaraldeko proiektu hidraulikoak egiteko. Hala ere, eskualdeko ordezkariek uste dute oraindik denbora dagoela hori zuzentzeko. Natxo Urkixo Laudioko alkateak azaldu du ezinbestekoak diren azpiegiturak eraikitzeko sortu den aukera ezin dutela pasatzen utzi.

Bosgarren edukiontzia aurkeztu dute. Argazkia: Udaltalde21

Udaltalde 21ek abian jarriko ditu 5. edukiontzia eta autokonpostajea

ERREDAKZIOA I Markel Iturrizar

Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek jakinarazi duenez, abian jarriko du hondakinen zati organikoaren gaikako bilketaren zerbitzu berria, Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo eta Orozkoko udalerrietan, besteak beste, bosgarren edukiontzia ezarriz eta autokonpostajea sustatuz. Izen-ematearen bidezko zerbitzu parte-hartzailea izango da. Bilketa berri horretan etxeen % 30ek parte hartzea da helburua. Izena emandako etxe bakoitzak birziklapen-kita jasoko du: 10 litroko edukiera duen ontzi bat, konposta egiteko poltsak, edukiontzia irekitzen duen giltza eta azalpen-eranskailua. Kita jasotzeko topaketa-egutegi bat ezarri da eta www.ut21.org webgunean bisita daiteke. Bilketa eta garraio zerbitzua datorren urriaren 27an, astelehena, hasiko da. Zerbitzua astean bitan eskainiko da, udan eta Gabonetan hiru bilketa egingo direlarik.

_Iruditan

Buruko Osasunaren Munduko Eguna ospatu dute Laudion. Pertsona ugarik parte hartu zuten; Jon Darpon eta Juan Maria Aburto Eusko Jaurlaritzako sailburuak, besteak beste. Argazkia: Aitor Burgoa

2015eko UDAL HAUTESKUNDEAK

Alderdi eta taldeak hasi dira euren alkategaiak jendaurrean aurkezten. 2011an bezala, Aiaraldea Komunikazio Leihoak hautagai guztiak elkarrizketatzeko asmoa du. Lehenengo bi aleak dituzue hemen:

JOSUNE IRABIEN
Amurrioko EAJ

"Hautaketa pozez hartu dut baina aldi berean erantzukizun handia da"

"Hurbiltasuna lortzeko ezinbestekoa izan da partaidetza; tresnak eta baliabideak ematea herritarrei erakundea hurbilagoa egiteko"

+info: Josune Irabien alkategaiari eginiko elkarrizketa

ALVARO BARRIOS
Laudioko OMNIA



"Gure helburua alkatetza lortzea da"

"Egia da Podemos zein Por un Mundo Mas Justok hurrengo hauteskundeetan Ikunek duen azpiegituraren aldeko jarrera izatea proposatu dutela"

+info: Alvaro Barrios alkategaiari eginiko elkarrizketa

_herriz herri

Urduña

Emakumeen lanbideak izango dituzte hizpide. Argazkia: Aztarna

Emakumeei zegozkien antzinako lanbideak erakusteko jardunaldiak

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako Adratan elkarteak emakumearen historia lantzeko jardunaldiak prestatu ditu. Azaroaren 6tik 9ra egingo dituzte. Alde batetik, emakumearen inguruko argazki erakusketa jarriko dute ikusgai Kultur Etxean. Bestetik, emakumeen memoria azaleratzeko hitzaldi eta tertuliak egingo dituzte.

Lehenengo zita azaroaren 6an izango da, 19:30ean. Gordexolako Argizka elkartearekin elkarlanean, "La memoria en femenino" hitzaldia eskainiko dute kultur etxean. Hurrengo bi egunetan -azaroaren 7an eta 8an- Urduña eta inguruetako emakumeen testigantzak entzuteko aukera egongo da; garai ezberdinetan bizitako esperientziak kontatuko baituzte 19:30etatik aurrera. Rafa Mendibil Adrataneko kidearen arabera, emakumeen langintza etxe-giroan egon da urte luzez: "Batzuek orratzekin, saskigintzan... jarduten[1] zuten, baina administrazioan apenas zuten presentziarik".

Lau urtetan hamaika ekintza

2010ean sortu zen Adratan elkartea, Urduñako memoria historikoa berreskuratu eta kontserbatzeko helburuarekin. Aurkezpena, baina,urte bat beranduago egin zuten, 2011n. Alabaina, egunerokotasunean garrantzia izan duten ohiturak, jolasak, espazioak eta lanbideak ere ikertu dituzte. Antzina Urduñan presente zeuden lanbideak ere zerrendatu dituzte, eta kaleen izendegia osatu.

Rafa Mendibilek 50.hamarkadan Urduñan zeuden mugimendu ekonomikoa eta bizitza soziala nabarmentzen ditu: "Soldadu asko zegoen, hezkuntzak eta industriak ere indar handia zuten".

Gaur egun, ordea, ofizio asko galdu direla dio, alpargata eta aulki egileak, zapatariak... Trenak arrasto[2] handia utzi zuen hiriko historian, haren aburuz: "Trena dela-eta, Urduñan lan egiteagatik bertan bizi ziren 300 pertsonatik gorako errolda dugu izen-abizenekin".

Hiztegia: *Jarduten[1], aritzen /Arrasto[2], marka*

Autokarabanetarako parkingaren ideia lehiaketa

ERREDAKZIOA I

Urduñako zezen plazaren zelaian autokarabanetarako parkinga egiteko ideien lehiaketa abiatu du udalak. Egitasmoa irailean aurkeztu zuten, eta Urduñederrak bideratu du. Udalak adierazi duenez, inguruari erabilera ematea da helburua, "utzia" dagoela iritzita. Proiektua garatzeko zezen-plaza inguratzen duen zelaia eta Gurutze Gorriaren eraikina erabili ahalko dira. Proposamenak aurkezteko epea azaroaren 15ean bukatuko da. Informazio gehiago nahi duenak Urduñako udaletxera deitu edo bertaratzea dauka (945383003).

Turismo bulegoa Alondegira mugitu dute

ERREDAKZIOA I

Urduñako turismo bulegoa Foru plazatik Alondegira mugitu dute. Hala, hiriaren inguruko informazioa eskaintzeaz gain, taldeen bisitak, erakusketak... jasoko dituzte bertan. Adierazi dutenez, bertako produktuen salmentarako lekua ere egokituko dute. Orain arte erabilitako lokala saldu egingo dute.

Amurrio

Txakur-jabeei zuzendutako kanpaina

ERREDAKZIOA I
Miren Ayesa

Udalak informazio gutunen bidez txakurren jabeak sentsibilizazio kanpaina abiatu du. Bertan, jakinarazpen zehatzak agertzen dira, hala nola, gorozkiak jasotzearen garrantzia eta beharrizana, bai eta aske uzteko prestatuta ez dauden lekuetan sokarekin lotuta eramateko beharrizana.

Udalak adierazi du txakurrekin loturiko kexak etengabe ari dela jasotzen, batez ere bi gaiei loturikoak: alde batetik, herri bidean txakurren kakak daudelako, eta bestetik, txakurrak aske ibiltzeko prestatutako zonaldeak eta ordutegiak ez direlako errespetatzen.

Gauzak horrela, Udalak gutun bat bidali die txakurren jabeei gogorarazten hainbat arrazoirengatik derrigorrezkoa dela animalien gorozkiak jasotzea. Izan ere, gorotzak dira txakurren artean gaixotasunak kutsatzeko iturri nagusia eta gizakiei eragiten dieten zenbait eritasunen transmisiorako bide ere badira.

Gainera, espaloietan utzitako txakurren gorozkiak zapaltzeak laprast eginarazi eta jaustea eragin dezake. Herrian txakurren aisialdirako 10 gune daude prestatuta.

Okondo

Aisialdi eta kultura eskaintza gehiago "Udazkena Euskaraz" programa eta Zine-forumaren abiatzearekin

ERREDAKZIOA I Angela Rico

Udazkena Euskaraz programa martxan da. Lehenengo ekintza Urtxintxa eskolak gidatu zuen; Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ume eta gurasoei zuzendutako tailer parte-hartzaile eta dinamikoa egin zuen Okondoko eskolan urriaren 20an. Bigarren ekimena Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako umeen gurasoei zuzendua dagoen hitzaldia da. Saioak euskara ez dakiten gurasoak kezkatzen dituzten hainbat galderari erantzuna ematea du helburutzat. Okondoko eskolan urriaren 27an 17:00etan izango da hitzordua; hitzaldia gaztelaniaz izango da eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute. Egitarauaren hirugarren ekintza azaroaren 2an 9:30ean izango da, Okondoko eskolatik abiatuko den mendi-irteera familiar gidatua. Antolatzaileek adierazi dute bazkalordurako Okondon izango direla eta ibilbidea ratioaren eta parte-hartzaileen adinaren arabera egokituko dutela. Bestalde Zineforum Okondo ere abiatuko dute ostiral honetan 19:00etan. "80 egunean" pelikula euskalduna emango dute.

Egitasmoaren helburua hilero Okondoko Eskolan filma bat proiektatzea izango da.

Aiara

Udalak hitzarmena sinatu du ASASAMekin

ERREDAKZIOA I
Miren Ayesa Aranoa

Aiarako Udalak lankidetza hitzarmenak sinatu ditu udalerrian lan egiten duten hainbat elkarterekin. Garrantzitsuena ASASAMekin egin du; elkarteak diru-laguntza jasoko du urtero, buru osasunaren esparruan egiten duen lana babesteko.

Esku pilota eskolari haurren kuotaren zati bat ordaintzeko 2.076 euroko diru-laguntza ere bideratu du erakundeak. Menagaraiko Amor Misericordioso eskolari ere 2.000 euroko diru-laguntza eman dio. Azkenik, Eskutxiko Ahotsak Abesbatzarekin ere hitzarmena sinatu du Udalak.

_iruditan

Euskararen erabilera sustatzeko jardunaldiak antolatu dituzte pasa den asteburuan Aiaran.

Umeak eta udalerria osatzen duten 24 herriak izan dira "Aiarako Euskararen Egunak" ekimenaren protagonista nagusiak.

Argazkiak: Zuriñe Alava

_herriz herri

Laudio

Bi zatitan banatzen dira gaur egun Laudioko Jaiak. Argazkia: aiaraldea.com

Bilera deituko dute jaien datak aldatzeko beharra aztertzeko

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru

Laudioko jaien data aldatzeko ordua heldu dela pentsatzen dute zenbait talde antolatzailek. Edo behintzat aztertzeko garaia. Horretarako bilera deituko du Udalak Jaien Batzarrera hurbiltzen diren elkarte, talde eta pertsonek parte hartu dezaten.

Fontso Larrazabal zinegotziak adierazi du oraindik ez dutela data zehaztu baina eztabaida emango dela aurreratu du. "Ez da udalaren ideia izan. Jaien balorazioa egiteko bileran aurtengo emaitzak oso positiboak izan direla eta jende asko hurbildu dela aipatu zuten hainbat taldek. Eta gehienek ondorioztatu zuten ez zela egon aurreko urteetan baino antolakuntza eta eskaintza askoz hobea. Ezberdintasun garrantzitsuena Bilboko Jaien data aldaketa izan da" azaldu du zinegotziak.

Hori dela eta eztabaida gauzatzeko interesa duten elkarte eta taldeen arteko hitzordua antolatuko du udalak. Jaien Batzarrean ekarpenak egiten dituztenek gonbidapena jasoko dute. Larrazabalek argitu du Udalak ez duela asmorik eztabaidan parte hartzeko, baina eztabaida ahalbidetu nahi duela.

Laudioko jaien daten inguruan zalantzak adierazi dituzte batzuek azken hilabeteetan. Aiaraldea Egunkariak argitaratutako zutabean Txema Urkijok idatzi zuen: "Zaindariaren jaien behin-behinekotasunaren zentzua urtu egin da. Horrekin batera, gure egutegi bereziak arazoak sortzen ditu antolakuntzan zein jaien kontzeptuaren ulerkeran. Luzeegia lehen, zatitua orain... eztabaida berdina da urtero. "

Laudioko EAJk ere jakinarazi zuen eztabaida hori ez duela saihestuko "beti ere modu lasaiean, eraikitzailean, inposaketarik gabe eta pertsona zein gizarte kolektiboen parte hartze zabalarekin egiten baldin bada".

Musika Etxearen proiektua aurrera ez doala salatu du Udalak

ERREDAKZIOA I Aitor Martinez

Arabako Foru Aldundiarekin pasa den astean elkartu ostean Lamuza parkearen egoera bideratzeko prozesuak aurrera egin ez duela salatu du udal gobernu taldeak. Bileran Musika Etxearen egoeraz mintzatu ziren.

Horren harira, AFAko ahaldun nagusia den Javier De Andresek hainbat ideia plazaratu dituela jakinarazi du udalak. Hala ere, aurreproiekturik ez du aurkeztu, eta horrekin denbora luzatzen ari direnaren sentsazioa dute Udaletik.

"Argazki gutxiago eta errealitate gehiago", esan diote udal ordezkariek Ahaldun Nagusiari SOS Laudioko Lamuza Parkea plataformaren aldarria sinatu izanaren aurrean.

Liburua kaleratu du Solatiarrek 20. urteurrena dela eta

ERREDAKZIOA I

Solastiar emakume elkarteak 20 urte bete ditu, eta liburua argitaratu du egindako ibilbidea jasotzeko. Ostiralean aurkeztuko dute "MEMORIA 1994-2014 Emakumeak moldeak apurtuz" Izaskun Landaida Larizgoitia Emakundeko zuzendariaren laguntzarekin.

Arrankudiaga-Zollo



Boto-paperak eta kutxak prest Arrankudiaga-Zollon. Argazkia: aiaraldea.com

16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute erreferendumean

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru

ADOS plataformak Arrankudiaga-Zollon azaroaren 2rako antolatutako galdeketan herritarrek erantzun beharko duten galdera hurrengoa izango da: "Nahi duzu euskal estatu subirano bateko herritar izan?"

Boza emateko zenbait baldintza bete beharko dira; Arrankudiaga-Zolloko biztanleei bakarrik utziko zaie parte hartzen eta 16 urte izan beharko dituzte gutxienez.

Informazio hori berresteko egunean dagoen NAN, gidabaimena, EHNA edo pasaportea erakutsi beharko dute parte-hartzaileek. Agiri horiek iraungita egongo balira, Arrankudiaga-Zolloko biztanlea dela bermatzeko errolda-ziurtagiria beharrezkoa izango da. Agiria udaletxean eska daiteke eta ezin izango da 2014/10/1ekoa baino lehenagokoa izan.

Galdeketan erabiliko diren boto-txartelak eta gutun-azalak antolatzaileek banatuko dituzte herriko etxeetan. Ados plataformak azaroaren 2an Elexalden jarriko du hauteskunde-mahaiko hautestontzia. 09:00etatik 20:00etara bozkatu ahal izango dute herritarrek.

Hala ere, auzoetan bozkatzeko eta boza sekretua emateko parada ere eskainiko du plataformak; pertsona gaixoei, adinekoei edo azaroaren 2an kanpoan daudenei botoa ematea ahalbidetuz. Horretarako, kontsulta antolatzen dutenekin harremanetan jarri beharko dira interesdunak.

Zolloko auzokideek azaroaren 1ean bozkatu ahal izango dute: 11etatik 12etara Ustaran; 12etatik 13:00etara, Aspiuntzan; 13:00etatik 13:30era, Zollourrutin, eta 13:30etik 15:00etara, Elexalden. Atxetan boto sekretu aurreratua emateko parada izango dute egun berean, plazan, arratsaldeko 17:00etatik 8:00etara.

EL TUNEL
TABERNA-JATETXEA
EZKONTZAK / BATAIOAK / JAUNARTZEAK
DESPEDIDAK / AFARIAK / BAZKARIAK
ETXERA ERAMATEKO JANARIA PRESTATU
ETA BILDOTSAK ERRETZEN DITUGU
OSTIRAL eta LARUNBATETAN HANBURGESAK, OGITARTEKOAK...
Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO Tlfnoa: 94 672 05 58

Bio maritierra
ETXEKO ELIKAGAI EKOLOGIKOAK AMURRION
• Fruitak eta barazkiak
• kontserbak
• Lekaleak
• Esnekiak
• Zerealak, pastak, arrozak
• Ogia eta arraultzak
• Produktu begetarianoak
• Gozokiak, gailetak, marmeladak
• Olioak
• Haurtxoentzako jakiak
• Edariak: ardoa, txakolina...
• Higiene eta norbera-zaintzeko produktuak
• Eta askoz produktu gehiago
ETXETIK EROSI
Etxerako aginduak jasotzen ditugu Amurrio, Laudio eta Luiaondon... Besteak kontsultatu
Aiara kalea 6, AMURRIO Tlfnoa: 945 891 750 e-maila: maritierra.amurrio@gmail.com

_sozioekonomia

%13.7 igo da udako turismoa Aiaraldean, Aiaraturren birmoldaketaren atarian

Iaz baino %13.7 bisitari gehiago gerturatu dira Aiaraldera uztaila eta iraila bitartean. Ostalariek baina, igoera askorik nabaritu ez dutela adierazi dute, eta eskualdeko turismoa sustatzeko egitasmo gehiago eskatu dituzte. Eder Sanchez Aiaratur turismo elkarteko presidenteak birmoldaketa fase batean sartuko direla jakinarazi du.

ERREDAKZIOA I
Txabi Alvarado Bañares

Udako egunak kanpora oporretan joateko erabili dituzte aiaraldear askok, baina badaude baita kontrakoa egin dutenak ere: kanpotik eskualdea bisitatzera etorri diren turistak. Eta ez dira gutxi izan: uztaila eta iraila artean 6000 bisitari igaro baitira Aiaraldetik, Orozko eta Arrankudiagako turismo datuak kanpoan utzita, iaz baino %13.7 gehiago. Hala adierazi du Aiaratur turismo elkarteak.

Aurtengoa gorakada nabarmena izan dela azpimarratu du elkarteak. Izan ere, inguruko zonaldeetan ere turismo igoera egon den arren, ez da Aiaraldean eman den gorakadara iristen: Araban %3.7 igo da, eta %2.7 EAEn. Hala ere, lortutako emaitza positiboak EAE mailan egindako turismo-kanpainarekin lotu ditu Eder Sanchez Aiaraturreko lehendakariak. Bere hitzetan, "ukaezina" da Bilborekiko gertutasunak eragin positiboa duela eskualdeko turismoan.

Turisten jatorriari dagokionez, Espainiar Estatutik bertaratutako bisitariek osatzen dute gehiengoa (%50), baina badaude EAEko beste zonalde batzuetatik bertaratzen diren pertsonak ere (%38a). Nazioartetik bertaratzen diren turistak %12a soilik diren arren, nabarmen egin du gora bisitari profil horren presentziak eskualdean (%12.8).

Ostalarien iritzia

24 hotel, pentsio eta landetxe daude eskualdean, Aiaraturrek helarazitako zerrendaren arabera. Turistentzako 362 ohe, guztira. Hala ere, ostalari gehienek adierazi dute ez dutela turismoan horrenbesteko igoerarik nabaritu.

Bost turismo bulego ditu Aiaraturrek, eskualdeko hainbat herritan sakabanaturik. Argazkia: Aitor Burgoa

ZENBAKITAN:

%50
bisitarien erdia Espainiar Estatutik dator. %38 EAEtik eta %12 nazioartetik.

362
oheko eskaintza osatzen dute eskualdeko 24 hotel, pentsio eta landetxeek.

Horretaz gain, Aiaraldea bisitatzera geratu den jendea gutxiengoa izan dela azpimarratu dute gehienek: askok alojamendua baino ez dute erabiltzen, gero Bilbora edo Euskal Herriko beste hainbat txokotara joateko. Valle de Ayala Hoteleko Iñaki Larreak bat egiten du baieztapen horrekin. Bere hitzetan, "oso eskasa" izan da eskualdea bisitatzera espresuki gerturatutako pertsona kopurua. "Jendea beste leku batzuk bisitatzen ditu. Kanpoko jende batek Zumaiagatik galdetu izan dit, *Ocho apellidos vascos* filma zela eta bisitatu nahi baitzuten".

Bisitarien profilaz galdetuta, gehienak bikoteak izan direla adierazi dute ostalariek. Aiaraturrek betetzen duen paperaz galdetuta, berriz, ostalari gehienek bertoko turismoa sustatzeko egitasmo gehiago martxan jarri beharko lituzkeela uste dute. Aiaraturreko lehendakaria den Eder Sanchezek, bere aldetik, aitortu egin du "hobetzeko margen handia" dutela oraindik, eta ostalaritza sektorearekin "estrategia mankomunatu bat" gauzatzearen beharra dagoela gaineratu du.

Aiaraturren birmoldaketa

Uda bukatuta, Aiaratur "birmoldaketa fase batean" sartuko dela jakinarazi du Sanchezek. Erabakimen organoen estrukturan moldaketak egingo dituzte, eta elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuetan aldaketak egitea aurreikusi dute. Urtarrila edo otsaila parterako prozesua bukatzea espero dute.

+info: Eder Sanchezi egindako elkarrizketa

Eusko Jaurlaritzarekin elkartuko dira Gometeguiko langileak

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru

Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko ordezkariekin elkartuko da asteartean Gometegui enpresako langile batzordea. Erakundeak erakutsitako interesaren ondorioz izango dute hitzordua Gasteizen.

Nahiz eta pasa den astean Gometeguik jakinarazi zuen aurkeztutako lekualdatze espedientea bertan behera utziko zuela -horren harira 30 langile Poloniara joan eta ekoizpena hainbat lantegitan banatu behar zuten-, enpresaren etorkizuna ez dago batere argi langileen ustez.

Berez, asteazkenean bilera egin dute zuzendaritza eta langileen ordezkariek. Sindikatuek espero zuten erabaki drastikoa aurkeztuko zutela jabeek, baina momentuz bi aste gehiago hartuko dituzte haien proposamena zehazteko eta elementu guztiak aztertzeko.

Bien bitartean erabat baztertu dituzte langile batzordeak egindako iradokizunak; jabeek adierazi baitute bideraezinak direla. Hala ere, oraingoz langileek abian jarritako mobilizazioak eten egingo dituzte egoera argitu arte.

Vidralako langileak grebara

ERREDAKZIOA I

Vidrala enpresako langileek greba egingo dute ostiralean eta goizeko 11:00etan Laudioko Herriko Plazan mobilizatuko dira. Modu horretan salatu nahi dute pertsona bat kaleratu dutela eta bere ardurak betetzeko eta aurrezteko kanpoko enpresa kontratatuko dutela.

Beharginek azaldu dute onartezina dela Vidralak norbait botatzea azken urtean izan dituen etekinekin. Bestalde, azken hilabetetan kaleratu duen bigarren pertsona dela salatu dute.

LAN ESKAINTZAK

- **Soldatzailea** (Amurrio)
- **Ingeniaria** (Laudio)
- **Area Manager** (Amurrio)
- **Langilea ekoizpen esparruan** (Amurrio)
- **Banatzailea** (Laudio)
- **Zumba, pilates eta aerobic irakaslea** (Okondo)
- **Delineatzaile industriala** (Laudio)
- **Galdaragilea,** (Laudio)

Informazioa: **Amurrio Bidean Toki Garapenerako Elkartea**

Mikel
Kormenzana
EHNE

_Hankamotz

Ekintza eguna, elikadura burujabetzaren alde

Urriaren 16an mundu mailako baserritar txikien, lur gabekoen, indigenen zein herri nomaden munduko erakundeak, Via campesinak, munduko elikadura burujabetzaren aldeko ekintza eguna deitu du.

Aurten korporazio transnazionalen aurkako ekintza eguna aurkeztu dute, hauek baitira mundu mailan elikadura burujabetzaren kontrako estrategia zehatzak eta zabalak hedatzen ari direnak. Egun honetan Via campesinak, herrialde guztietan, erresistentzia edo eta mobilizatu egiten diren gizarte zibilaren erakundeekin elkartasuna adierazi nahi du.

Zentzu honetan ere hiri eta baserrien arteko loturak, estrategiak eta aliantzak areagotzearen aldeko apustua deitzen du. Hori baita bidea alternatiba bideragarriak aurrera eramateko.

Gure eskualdean ere ekintza ezberdinak jorratuko dira urrian zehar; konkretuki, Urduñako elikadura burujabetzaren aldeko 3. astea antolatuko da urriko azken egunetan, animatu parte hartzen.

Transnazionek gurean ere elikadurarekin harreman zuzena dute. Jantoki kolektibo publikoen kudeaketan, uraren kudeaketan, lurraren kontzentrazioan, basogintzan, hazien pribatizazioan edo transgenikoen hedapenean, esate baterako.

Horrexegatik, hemen ere elikaduraren inguruan eskualde mailako aliantza zuzenak jorratu egin behar dira baserritar eta langileen artean, instituzio eta gizarte mugimenduen artekoak.

Aurrera orduan.

kutxabank-ekin hazi

primeran!
Gazteentzako Kutxabanken plan, proposamen eta irtenbideak.

Kutxabanken hipoteka gaztea*:

Euriborra +%1,25etik

35 urte bete arte.
Euriborra + %1,50 epearen gainerako aldirako.

Lehenengo urteko ITN: %2,50
UTBAldakorra: %2,47

Balizkoa: 27 urteko bezeroa; 100.000 euroko mailegua; 30 urteko epea (tasazioaren zenbatekoaren gaineko %80a). Kuota finkoa, amortizazio-sistema frantsesa. Euriborren balioa 2014ko abuztuko BOEkoa da: %0,469.

(*) Eskaintzaren baldintzak: hilero 4.500 €tik gorako nominak helbideratuta edukitzea; Kutxabank txartelen bidez saltokietan egindako kontsumoa urteko 2.400 €tik gorakoa izatea; eta Baskepensionesera edo Pentsio Planera egindako ekarpena 1.000 €tik gorakoa izatea.

Indarreko legeriaren arabera, adibide honetan UTBAldakorra kalkulatzeko hasierako gastuen zenbatekoa hurrengo hau da: 1.861,60 €. Irekiera-komisioa: 0 €. Etxebizitza-aseguruaren baldintzak: 61. 287 euroko edukitzailearen kapitala; 24.514,80 euroko edukiaren kapitala; eta 243,81 euroko prima. Tasazioa: 272,25 €. Erregistroaren ordainsariak: 310 €. Gestoria: 305,54 €. Zergak: 730 €. Bezeroak kontratua egitean ordaindu behar ditu.

Etxebizitza-asegurua Kutxabank Seguros konpainiarekin kontratatu behar da. Bitartekaria: Kutxabank SA Banka-Aseguruen Operatzailea. Honako eskaintza hau merkatuaren bilakaeraren arabera alda daiteke eta Kutxabank SAk onartuz gero, mailegua emango da.

Eskatutako baldintzak bete ezean, Euriborren gaineko diferentzialak UTBAldakorraren %0,60ko proportzioan (%3,024) handituko dira.

UTB Aldakorra erreferentziazko indizeak aldatzen ez direlako hipotesiaren arabera kalkulatu dira; beraz, UTB Aldakorra interes-tasak berrikusi ahala aldatuko da. Urtero berrikusiko da.

primeran!

Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizk. Merk. Erreg. 5226 T, 0 L, BI-58729 O, 1 F, 1. I.

Mendi taldeak: 50 urteko martxa aldapatsuaren eskualdeko kronika

Ibilbide gorabeheratsua izan da Aiaraldeko mendizaletasunak bizi izan duena, aldapaz beteriko martxa. Duela mende erdi baino gehiago sortu ziren eskualdeko lehen mendi taldeak, eta azken hamarkadan bigarren loraldi bat egon da.

ERREDAKZIOA I I Xabi Zalbide

Mendi-martxa ugari antolatzen dituzte urtean zehar eskualdeko mendi taldeek. Goiko irudia iaz

Euskal Herriko mendizaletasun modernoa, alpinismo britainiarraren eraginez, XX. mendearen lehen urteetan errotu zen bertoko hiri nagusietan. Orduan kirol-klubak sortu ziren eta, beste jarduera askoren artean, mendiarekin lotutako jarduerak egiten hasi ziren. Hain zuzen ere, Euskal Herrian egindako lehen eskalada saioa, Aiaraldean egin zen, 1924an Ángel Sopeñak Tertangako Fraileburu igo zuenean.

Afizio horren ondorioz, Euskal Herriko Federazioa sortu zen urte horretan bertan, 1924an, lurralde osoan abian jartzen ari ziren klubak batzeko asmoz. Ia 3.000 lagun elkartu ziren federazio horretan, sasoi horretarako oso jende-kopuru handia.

Baina Gerra Zibila etorri zen 1936an eta eten izugarria ekarri zuen gizartera eta, jakina, euskal mendizaletasunera. Gerraostea ere aro beltza izan zen, 60. hamarkadara arte itxaron behar izan zen euskal mendizaletasuna berpiztu zedin.

Hala, urte latz horiek atzean uzten hasi zirenean, mugimendu sozial eta politikoen biziberritzearekin batera, mendizaletasun "soziala" ere azaleratzen hasi zen, eta asko izan ziren Euskal Herrian antolatzen hasi ziren taldeak. Sasoi hartako loraldi ak gure eskualdean ere isla izan zuen, non hiru talde sortu ziren 60. hamarkada aldera: Laudioko Goikogane 1959an, Amurrioko Mendiko Lagunak 1962an eta Urduñako Txarlazo Mendi Taldea 1964an. Taldeek lotura handia izan zuten mugimendu euskaltzalearekin eta abertzaletasunarekin, eta mendiak eskaintzen zuen nolabaiteko askatasuna baliatu zuten horrekin lotutako ekintzak egiteko. Goikoganeren lokalean, adibidez, Jon Gallastegi klubeko kidearen hitzetan Laudioko euskal dantzen taldea sortu zen. Amurrion ere, Mendiko Lagunak taldearen egoitzan jarri zen abian lehenengo ikastola.

Euskal Herrian eskalada lehen aldiz Aiaraldean egin zen, 1924an, Angel Sopeñak Tertangako Fraileburu igo zuenean.

Lehen urte horietan gaur egun ere erabilgarri dauden aterpeak abian jarri zituzten; Goizale aterpea amurrioarrek, Gorobelen, eta Austegiarminen Laudiokoek.

Geroago sortutako taldeak

Aiaraldeko herri nagusietan duela 50 bat urte eta testuinguru sozial eta politiko jakin batean sortu baziren bertako mendi-taldeak, beste herrietako elkarteen kasua ezberdina da, eta haien sorrera egoera normalago batean gertatu zen 80. hamarkadatik aurrera.

Orozkoko Itxinape taldea, esaterako, 1988an sortu zen, mendira joateko zaletasuna zuen jendearen ekimenez, "batera joateko, lehen ez zegoelako bakoitza bere kontura mugitzeko gaur egun dagoen erraztasuna", Mikel Olabarria Itxinapeko kidearen hitzetan. Aiarako Garobel Mendi Taldea ere urte horietan sortutakoa da.

XXI. mendea heltzearekin batera mendi-talderik ez zuten udalerrietan ere elkarteak sortu ziren; hala, Artziniegako Ganzorrotz Mendi Kirol Elkartea 2003. urtean sortu zuen 20 urte inguruko gazte talde batek, besteak beste eskalatzeko boulderra muntatzeko asmoz. Baina Andoni Ramírez presidentearen arabera 2010ean "inflexio- puntua" gertatu zen, "taldetik kanpo aritzen ziren beste mendizale batzuk martxoaren lehen domekako mendi martxa antolatzeko elkartu zirenean".

Eskualdeko mendi taldeak bi taldetan banatu daitezke: Frankismoaren azken urteetan sortu zirenak alde batetik, eta geroago sortu zirenak, bestetik.

Handik aurrera mendi taldeak bultzada izan zuen eta "asko handitu zen", orain dituen 130 bazkideetara heldu arte. Duela gutxi, gainera, udalak lokala laga die.

Hortaz gain, Okondok Ganekogorta Mendi Taldea ere badu. Justino Arto presidenteak dioenez, bera Okondora bizitzera joan zenean, 2010ean, bilera bat egin zuten herriko mendizale batzuek eta udalak sustatuta, eta azkenean 2012an elkartea eratzea lortu zuten, "herrian mendiarekin zerikusia duten jarduera guztiak bultzatzeko". Horretarako sekzioak dituzte eta kirol, kultura eta ekintza sozialak uztartzea dute asmo. Gaur egun 40 bazkide dira.

Nahi beste jarduera

Orokorrean, pentsatzekoa denez, Aiaraldeko mendi-taldeen jarduera nagusia asteburuetako mendi-txangoak dira. Talde batzuek (Artziniegakoak eta Okondokoak kasurako) hilean behin egiten dituzte irteerak, eta beste batzuek, bazkide gehien dituztenek, birritan edo hirutan. Irteera gehienak egun pasa egiteko izaten dira,

ko Gorobel Martxakoa da.. Argazkia: aiaraldea.com

eta horietan talde txiki edo ertainak batzen dira. Baina badira asteburuko txangoak ere: Pirinioetara, Europako Mendietara eta abar. Baita luzeagoak ere, hala nola Mendiko Lagunak-ek antolatzen duen Aste Santuko bidaia. Talde gehienek, gainera, mendi-materiala alokatzeko zerbitzua daukate.

Aipamen berezia behar dute taldeek antolatzen dituzten mendi-martxek. Euskal Herrian mota honetako ibilaldi asko daude, eta Aiaraldea ez da salbuespena; talde guztiek antolatzen dute urtean martxa bat. Batzuk duela urte asko egiten dira, Orozkokoa adibidez, baina gehienak azken hamarkadan abiatutako ekimenak dira.

Berriena Okondokoa da, izan ere, aurten 3. edizioa antolatzen ari dira azarorako. Antolakuntza aldetik lan handia ematen dute mendi-ibilaldi neurtuek, eta "kide eta laguntzaileen lanari esker ateratzen dira aurrera" Mikel Olabarriaren esanetan.

Iñaki Unzaga Mendiko Lagunak taldeko presidenteak beste ekimen bat aipatu nahi izan du: mendi-eskola deritzona. Amurrioko eskola-umeen artean mendizaletasuna sustatzeko jarri dute abian eta 6-7 irteera dituen egutegi bat atondu dute. Aiarako Garobel Mendi Taldekoak ere umeen artean kirol -praktika hau sustatu nahian dabiltza Luiaondoko guraso eta umeen talde batekin.

Ohitura aldaketak

Agerikoa da 50 urte luze hauetan aldatu egin direla mendira joateko eta mendiaz disfrutatzeko moduak.Txarlazo mendi-taldeko Kepa Kormenzanak ondo gogoratzen du antzina ez zegoela "garraio askorik" eta gainera "astea larunbatean amaitzen zela". Ondorioz igandeetan joaten ziren inguruko mendietara. Oporretan joaten ziren soilik urrunagoko mendietara, eta egun, ostera, "edozein asteburutan joan daiteke Pirinioetara".

Mendi-taldeetako arduradunek nabarmentzen duten beste fenomeno bat da gaur egun, mendian gero eta jende gehiago dabilen arren, mugitzeko erraztasuna talde handiak egiteko traba dela. Okondoko Justino Arto eta Itxinapeko Mikel Olabarria bat datoz horretan. Olabarriaren esanetan, irteera berezietan izan ezik (Pirinioak, sagardotegia...) "normalean bi kotxetan joan daitezke". "Hamar pertsona badatoz pozik. Jende gehiago joaten da mendira, baina bakoitza bere kontura mugitzeko joera dago".

Kontuan hartu beharreko beste joera garrantzitsu bat da mendian egiten diren jarduerak izugarri dibertsifikatu direla azken urteotan. Ohiko mendizaletasunaz gainera bada mendiko ziklismoa, neguko mendi-kirolak (mendiko eskia, adibidez, indar handia hartzen ari da azkenaldian), bada espeleologia, eslakada, mendiko lasterketak... aniztasun hori erronka bat da gure mendi-taldeentzat, eta badirudi ederto egin diotela aurre.

MENDIKO LAGUNAK

Amurrio, 1962

ITXINAPE MENDI TALDEA

Orozko, 1988

GANZORROTZ MENDI TALDEA

Artziniega, 2003

TXARLAZO MENDI TALDEA

Urduña, 1964

GANEKOGORTA MENDI TALDEA

Okondo, 2010

GAROBEL MENDI TALDEA

Aiara, +/- 1994

GOIKOGANE MENDI TALDEA

Aiara, 1959

Mendizaletasuna Urduñan, Txarlazo baino zaharragoa

Mende erdi bete berri du Urduñako Txarlazo Mendi Taldeak. Mendizaletasunaren sorrera baina, 20. hamarkadan kokatzen dute taldeko kideek.

20. hamarkadan eraiki zen "El Corralejo"-n dagoen aterpea. // Txarlazo M.T.

ERREDAKZIOA I **Txabi Alvarado Bañares**

1964. urtean sortu zen Txarlazo mendi taldea, duela 50 urte. Baina mendira joatearen ohitura zaharragoa da Urduñan. Hori ondorioztatu du Txarlazoko kide beteranoenetako bat den Txetxu Lanbarrik.

Bere hitzetan, hiriaren industrializazioarekin batera sortu zen mendira joatearen ohitura, 20. hamarkadan. Lanbarriren hitzetan, Urduñako langile eta nekazari klaseek ez zuten aisialdi moduan menditik ibiltzeko ohiturarik. Hiriko Jesuiten eskolan eta Mariaren Konpainian ikasten zuen burgesia izan zen mendizaletasunean lehen pausoak eman zituena.

Erreferentziarik zaharrenetarikoa 1923koa da. Urte horretan hasi zen ospatzen Santiago Eguna, gaur egun ere ospatzen dena. Urduñako EAJk antolatzen zuen erromeria, eta beste izen bat jarri zion: "Txarlazoko ama-birjinaren tontorrera edo mugara bidaia", Santiago Espainiarren patroia zelako. "Horregatik zeharkatzen zuten muga, festa Euskal Herrian ez ospatzeko", azaldu du Lanbarrik.

Beste pauso garrantzitsu bat 1924an eman zuen Angel Sopeña mendizale bilbotarrak, Frailebururen tontorrera ofizialki igo zen lehen pertsona bilakatu zenean. Ekintza hori nazioarteko prentsan oihartzuna izatera iritsi zen, Lanbarriren hitzetan; "sortu zen euforia kutsagarriaren ondorioz Urduñako Udalak ezohiko udalbatza bat egin zuen, zeinetan Frailebururi "Angel Sopeña" izenarekin berrizendatzea onartu zen".

Hurrengo data garrantzitsua 1927an izan zen, herritar talde batek Udalean baimen eskaera bat tramitatu zuenean, Gorobelen dagoen "El Corralejo" pasabidean aterpe bat eraikitzeko. Gaur egun "Txopera" izenaz ezagutzen da aterpe hori.

Frankismoan, klandestinitatean

Erregimen frankistaren ezarpenarekin, mendizaletasuna "klandestinitatera" pasa zen -Lanbarriren hitzetan- Frankismotik eratorritakoa ez zen kontu oro egitea debekatu baitzen.

Gauzak hala, hamarkada batzuk itxaron behar izan ziren "Grupo de montaña Txarlazo" legalki sortu ahal izateko. Baina sortzerakoan ere traba ugari izan zituztela oroitu du Lanbarrik: taldeko kide batek bokal izateari utzi behar izan zion bere aitak Arabako Batailoian errepublikaren alde borrokatu zuelako. Hortaz gain, euren behin-behineko egoitza Acción Catolicaren gazte zentrotik "Pruden" tabernara mugitzera derrigortu zituzten, lehenengoa "separatisten kabia" zela argudiatuta. "Pruden" tabernan "errekete nostalgikoen kontrolpean" bildu behar zirela salatu du Txarlazoko kide beteranoak, eta gaineratu du udalak pertsona bat infiltratu zuela taldean, zeini "el radar" ezizena jarri zitzaion.

Oztopoak oztopo, ez zen makala izan lehen urte haietan taldeak egin zuen lana: "El Corralejo"-ko aterpearen berreskurapena eta berritzea, zortzi gutunontzi eta begiratoki bat jartzea, besteak beste. Herritarren erantzuna ere beroa izan zen, 1984. urterako 365 bazkide baitzituen elkarteak

_kultura

Musika sortzeko ilusio eta gogoak entsegu lokalen bila Aiaraldean

50 musika talde inguru daude eskualdean, baina askoz gutxiago dira entseatzeko dauden tokiak. Alternatiba pribatua da talde gehienen hautua, lokal publiko oso gutxi daudelako. Amurrioko Goya etxeko lokalaren itxierak espazio falta nabariagoa egingo du.

ERREDAKZIOA I
Txabi Alvarado Bañares

Anplifikadoreak piztu, baketak eskuetan hartu eta jo. Hori da Aiaraldean dauden dozenaka musika taldek astero egiten dutena: entseatu. Ilusio eta gogoak bai, baina energia guzti hori musika bilakatzeko espazio falta dagoela azaldu dute taldeetako kideek.

Espazio falta hori, gainera, are nabariagoa izango da laster, Amurrioko Goya etxean (La Kuadran) dauden entsegu lokalak uzteko agindua iritzi baitzaie bertan entseatzen duten taldeei. Mandoilek edota Habemus Papam bezalako taldeak aritu izan dira bertan, eta lehenago ere beste hainbat taldek astindu dituzte baserri horretako paretak.

Garai batean Amurrioko Udalak entsegu lokal publiko batzuk kudeatzen zituen Reforren, baina bertan industriagunea egin zenean taldeak espazio gabe geratu ziren. Hala azaldu du Mankaos taldeko kide den Jabi Markinezek. Beste talde asko bezala, Mankaosekoak ere Goya etxera joan ziren entseatzera Reforreko lokala itxi zirenean udalak hala proposatuta.

Gaur egun, baina, Laudion elkartzen dira Mankaosekoak, hainbat entsegu-lokal barnebiltzen dituen Landaluze auzoko eraikin batean. Metro karratu eskaseko txoko bat dute taldeko kideek bertan alokatuta, Capitan Ahab taldeko kideekin batera, eta inguruko geletan Amankomun edota Dratsab bezalako taldeak dabiltza. "Lokal txikia da", aitortu du Markinezek, baina gaineratu du lokal pribatua izateak "pribatutasuna" ematen diela.

Entseatzeko espazio falta dagoela diote eskualdeko taldeek. Irudian, Five Corners taldea. Argazkia: Irune Norris

Entsegu lokal publiko bakarra dago eskualdean, Urduñako Alondegian. Lokal autogestionatuak ere badaude: Amurrioko Goya etxean eta Laudioko Orbeko Etxean.

Lokal publikoen beharra

Aiaraldea Egunkaria eskualdeko hainbat talderekin jarri da harremanetan, eta gehienek adierazi dute entseatzeko lokal publikoen beharra dagoela. "Oso ekimen interesgarria izango litzateke", adierazi du Red Lotus taldeko Aitor Banderasek. Eskualdean, baina, lokal publiko bakarra dago: Urduñako Alondegia. Haginak, 30.0g, Eztanda edota Aizkorakada taldeak bertan dabiltza. 5 euroko kuota ordaindu behar dute taldeek urtero, eta bi euro entseatzen ematen duten ordu bakoitzeko. Zerikusirik ez lokal pribatu bat alokatzeak hilero dakarren ehundaka euroko kostuarekin.

Baina, lokal publiko falta dela eta, alternatiba pribatua da talde askori geratzen zaien aukera bakarra. "Laudion ezinezkoa da entseatzeko leku bat lortzea, ordainduta ez bada", adierazi du Aizkorakada taldeko kide den Jon Iturregik.

Amurrion ere, antzera. Medialan estudioetan, adibidez, Five Corners, Izate Faltsua, Lupulo edota Astarte taldeek entseatzen dute, beste hainbat talderekin batera. Laudioko Drumgorri aretoak ere eskaintzen du entseatzeko espazioa, orduka.

Atzean geratu dira Laudioko Skuataren garaiak. Lateorro auzoan zegoen eraikin okupatu horretan makina bat taldek entseatu zuten doan (Une Latzak, Danba...) harik eta 90. hamarkadaren hasieran poliziak eraikina desalojatu zuen arte. Gaur egun, baina, Orbeko Etxeko kideek ekin diote baserri okupatuko gela batzuetan musika taldeentzako espazioa egokitzeari. Momentuz bi dira bertan entseatzen duten taldeak: Erio eta Ikäara. Baina lokaletako ateak nahi duen orori zabalik daudela azpimarratu du Erio-ko abeslaria den Oier Velezek. "Orbekoko asanbladan parte hartu eta konpromisoak hartzea da baldintza bakarra".

Eskualdetik kanpo

Aiaraldeko talde gehienek eskualdean entseatzen duten arren, badaude beste leku batera jotzen dutenak ere. Inner Destiny taldeko kideek, adibidez, Arrigorriagan entseatzen dute, erraztasun gehiago dituztela arrazoituta. "Gure musika -bizitza kanpoan egin dugu", azaldu du taldeko kide den Jon Larrinagak. Bere ustean, instituzioek "tokiko taldeen aldeko apustua" egin beharko lukete, "laguntza behar dutelako".

50 talde baino gehiago

Zaila da eskualdeko musika taldeen zenbaketa bat egitea. Izan ere, Aiaraldeko talde askok oso kontzertu gutxi eskaintzen dituzte eskualdean, eta badaude baita eskualdetik kanpoko beste pertsona batzuekin taldea osatzen duten musikariak ere.

Gauzak hala, eskualdeko 50 talderen berri jaso du Aiaraldea Egunkariak. Genero eta estilo anitzetako taldeak dira. Punk , rock, hardcore eta metal doinuak (30.06, Atxurre, Ikäara, Erio, Aizkorakada, Five Corners, Haginak, Astarte, Izate Faltsua, Versen, Dratsab...) nagusitzen diren arren, badaude reggae-a edota hip-hop-a jorratzen duten taldeak (Lyrikan eta DJ Funi, Gwaya...). Folk-ak ere badu bere lekua Ostara edota Nahasiak bezalako taldeei esker. Hortaz gain, ugariak dira baita ere talde akustikoak eta bakarlariak (Uluka, Ilargi Gorria, Hutsa, Capitan Ahaf, Buterfly, Igor Arzuaga, Luis Vil, Perdido entre ilusiones, Alperrikako bizien jabe...).

Mikel Ayllon IDAZLEA

_Kamerinoa

Japonieraren alde

Dantzan ditut kirioak. Mari lasaiago dagoela ematen du. Mari beti dago lasaiago.

-Ez izan beldurrik zuzendari babalore horri! –bota dit kuraia emateko.

Garbiketarako trasteak aparte utzita, enpresako zuzendariaren bulegoaren aurrean gaude gaur, itxarongela zabalean zain. Zurrumurruen arabera, kaleratzeak egongo dira.

-Ni, badaezpada, curriculumak bidaltzen hasi naiz, eta Tokioko enpresa batetik deitu didate! –esan diot Mariri ahapeka.

-Hara! Japoniara joango zara?

-Zera, beno, ba...

Kopeta nola ilundu zaidan ohartu da Mari.

-Baina, mutil, ba al zoaz ala ez zoaz?

-Japoniar nazkanteak! Ez didate esan ba japoniera jakin behar dudala bertan lan egiteko! Aizu, ni japonieraren alde nagoela eta hori guztia, noski, baina zertarako demontre jakin behar dut japoniera? Hautsari japonieraz egin behar diot ala zer?

-Japoniar miserableak! Zer uste dute ba, hizkuntza arma bat dela? -Mari berriro trufaka ari zaidala uste dut.

Supituan ireki da zuzendariaren bulegoko atea, eta eten egin du gure solasaldia. Zuzendariak ahoa ireki bezain laster zorroztu ditugu belarriak.

-Lanorduak murrizteko erabakia hartu dut. Soldatak, berriz, bere horretan mantenduko ditugu. Denbora gehiago izango duzue bizitzeko.

Berehala argitu zait kopeta. Belarri ingurura etorrita, xuxurlaka hasi zait Mari:

-Eskerrak ez gauden Tokion, bestela nagusiari ulertu ere ez genion egingo!

_kultura

_Hilberriak

Avelino Fernandez Aja (1943-2014)

Iragan astean zendu zen Avelino Fernandez Aja, 71 urte zituela. Bere heriotzak beste data bat ekarriko die urduñar askori gogora: abuztuaren 15a. Egun horretan Kale Barriako San Roke jaiak ospatzen dira, eta Avelinok protagonismo berezia izan du ospakizun horretan; urtero-urtero Morrillonez jantzi eta bainuetxeko leihotik tirolinaz jaitsi izan baita, behean zain izan dituen umeei gozokiak botatzeko.

Berak aipatzen zuen ez ziola beldurrik tirolinaz jaisteari. "Benetako Morrillonek, berriz, bai, bertigoa baitzuen gizagaixoak". Morrillon hil egin zenean Avelinok hartu zuen bera ordezkatzearen ardura. Eta hala aritu izan da azken 21 urteetan, inoiz huts egin gabe.

Morrillonen papera egiteagatik soilik ez, elkartegintzan egindako lanagatik ere izango da gogoratua Abelino. Hiriko abesbatzan eta txirrindula elkartean oso aktibo ibili da, eta peñen sorreran ere arrasto handia utzi zuen. Hirian garai batean zeuden lau koadrilen blusen zatiekin blusa berri bat sortu zuen, eta "Batasunak egiten du indarra" lema josi zuen atzealdean. Beste hainbat herritarrek berdina egin zuten gero.

_kultur leihoa

Endika Diaz
MUSIKA

Perdido entre ilusiones

Musikaria: Perdido entre ilusiones (Jokin Arias)
Diskoa: De las ruinas renacer
Zigilua: Harakiri Records,

Perdido Entre Ilusiones ezizenpean aurkezten digu Jokin Arias bakarlari amurrioarrak bere lehen diskoa. "De las ruinas renacer" izenburutzat daraman diskoa Javi Palacios teknikariaren gidaritzapean grabatu du Jokinek Urduñako Konjuntibitis estudioetan. Hamar kantek osatzen dute diskoa, abestien gehiengoa bakarlari akustiko estiloan grabatuta daudelarik. Hitzei dagokienez, guztiak gazteleraz idatzitakoak, sentimenduei so egiten dieten kantak batez ere topatuko ditugu "De las ruinas renacer" diskoan, iluntasunarentzat ere lekua uzten dutelarik.

Apainketa gisa, Arrate Corcuera amurrioarraren ahotsa aurkitu daiteke "Pulso al tiempo", "Desconocidos que se conocen" eta "No es tan difícil" abestietan. Gainera, Xabi Verak eta Urko Izquierdok klarinete eta bibolin konponketak ere grabatu dituzte "Pulso al tiempo" kantan.

Aurreko urtean Kolonbiatik bira egin ostean, aurten Euskal Herrian zehar aurkezpen bira bat prestatzen dabil "Perdido Entre Ilusiones". Izan ere, aurreko hilabetean Amurrioko Gaztetxe ireki berrian kontzertua eskaini zuen.

+info: "De las ruinas renacer" diskoa entzungai.

EGURTEK SARIAK 2014

"Arkitektura isil bat planteatzen dugu, ez harroa baizik eta umila"

Egurtek Saria irabazi dute BEÑAT SARATXAGA (Bilbo 1975) eta GENTZANE GOIKURIA (Portugalete, 1976) arkitektoek Orozkon egurrez egindako etxeari esker.

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru

Zer suposatzen du Egurtek Saria irabazteak?

Edozeinentzat sariek aitorpen polita suposatzen dute, zure lana eta helburuak ulertu egin direnaren seinale da, nahiz eta proiektatzerakoan inoiz ez dugun pentsatzen sarietan, baizik eta gure proiektuen erabiltzaileen behar eta nahiak era egokian asetzean.

Hau oso garrantzitsua da, izan ere, kezka handiz bizi dugu arkitektoen eta gizartearen artean nabaritzen dugun nolabaiteko haustura komunikatiboa.

Zergatik egurra eta ez beste material mota batzuk?

Guretzako egurra oso material berezia da, alde batetik dituen ezaugarri estetiko eta materialengatik eta bestetik beneteran eraikuntza material jasangarria delako.

Zuen diseinuak inguruko paisaian txertatzen saiatu zarete, ezta?

Kasu honetan kokalekua harrigarria da, Gorbeialdeko mendi hegal batean hegoaldera, Itxina mendilerro harritsuari begira.

Tokiko eraikuntza tradizioa errespetatzen duen eraikin bat proiektatzeko asmoz, inguruko baserri eta biltegi tipologiak aztertu genituen.

Hau oso nabarmena da azken emaitzan, mendi hegalaren aldapari moldatzen den bere estalki handiarekin, eraikina oso ondo txertatzen da paisaian.

Zein uste duzue dela zuen ezaugarri garrantzitsua arkitekto talde gisa?

Alde batetik behaketatik sortzen den arkitektura bat egiten dugula, beharretan oinarritzen dena, eta behar dena soilik planteatzen saiatzen dena, hortik dator Behark izena.

Arkitektura isil bat planteatzen dugu, ez harroa baizik eta umila, hortik katzen da h hizkiak gure logoan duen garrantzia.

+info: irakurri elkarrizketa osoa

Argazkia: BEC (C)

Aiaraldea Komunikazio Leihoa ikuskizun berria prestatzen ari da

ERREDAKZIOA I

Aiaraldea Komunikazio Leihoa ikuskizun bat prestatzen ari da abenduaren 14rako. Helburua bikoitza da: emakumeen ikusgarritasuna eta sortzaileen lanak artearen bidez oholtzara eramatea, eta eskualdeko arte espresioak euskararra biltzea.

Sortzaileei deia

Ekitaldia Amurrioko Antzokian egingo dute eta protagonistak eskualdeko artistak izango dira. Hargatik, parte hartu nahi duen orori (dantzariak, raperoak, clownak, kultur taldeak, musikari eta kantariak, idazleak, margolariak eskultoreak...) urriaren 26a baino lehen harremanak@aiaraldea.com helbidera idazteko dei egin diote. Era honetan eskualdeko kultur taldeekin harremanak euskaraz sustatzea lortu nahi dute: "Gure elkartearen filosofia izanik euskararen herrian bizi diren Aiaraldeko espresio eta arteadierazpen mota guztiak taularatu nahi ditugu".

Amurrioko historia dantza ikuskizun bihurtuko du Aiara Dantza Taldeak

ERREDAKZIOA I

Aiara Dantza Taldeak oso ikuskizun berezia prestatu du: 30. hamarkadatik gaur egunera arte Amurrion gertatutakoak azalduko dituen dantza eta antzerki emanaldia. Ikuskizuna Amurrio Antzokian eskainiko da eta ikusteko bi aukera izango dira, azaroaren 29an izango da lehenengoa, arratsaldeko 20:00etan eta hilaren 30ean, 19:00etan, bigarrena.

"Missed" disko berria aurkeztuko du Yogurinha Borova artista laudioarrak

ERREDAKZIOA I

Yogurihna Borova artista laudioarrak disko berria du eskuartean: "Missed". Gaur (osteguna) aurkeztuko du lana, Bilboko Power Records dendan. Borovak aurreratu duenez, bere aurreneko diskoko abestien remixez osatua egongo da lan berria. Uda partean bere abestien remix lehiaketa egin zuen Borovak, diskoan joango zirenak aukeratzeko.

Javi Aspuru
IRAKASLEA

_Lurpetik

Aiara izena

Aiara, Aiara bailara, Aiara udalerria, Aiara koadrila, Aiarerria, izen gatazkatsua eta korapilatsua, izaera ezberdina duten entitateak, izen berdina erabiltzearen ondorioa da . Eta, gainera, zer egiten dugu eskualde berean dagoen Urduña hiriarekin? Eta Orozkorekin? Artziniega ere sartzen da, kili-kolo. Eta Nerbioigoiena? problematikoa ere, Artziniega eta Okondo Kadaguako isurialdean daudelako.

Euskarazko Aiaraldea izena da behar bada aproposena, bere indarra mugagabea izatean datza. Aiaraerria izen jatorrizkoena da, Saraubeko zelaian biltzen ziren 36 herriko ordezkarien batzarraren eremua da. Gaur egun oraindik geratzen dira izaera horren bi hondarrak : "Salvada Mendilerroako Ermandadeko Junta" bat eta testamentua egiteko Aiarako Forua indarrean dagoen eremua bestea.

Aiaraldeko mugen zehaztasun falta eta nahasmena ez da gaurkoa, Lehenengo Karlistadaren ondoren, 1848 urtean, Madoz historialari iruinarrak, Hiztegi geografiko-estatistiko-historikoa atera zuen herrialdeka eta Arabakoan aiaraldeko nahasmena aipatzen du, Urduña hiria sartuz. Horregatik, F. Coelloren Arabako mapan Urduña hiriko planoa agertzen da.

Bestalde, Esparteroren garaian 1843 urteko Maiatzaren 16tik Irailaren 6ra arte Madrileko errege-aginduz Urduña Araban sartu zuten, Laudio eta Okondo Bizkaira pasatuaz. Herritarrek ez zuten onartu inon, eta Araba eta Bizkaiko Foru Aldundiek ere ez. Horregatik foru-baimena aplikatzea adostu zuten. Madrili ez zitzaion beste aukerarik geratu atzera egitea baino.

_kirola

ESKUBALOIA

38 urte beteta, denboraldi berriari ekingo dio eskualdeko eskubaloi talde bakarrak

Duela 38 urte sortu zen Laudio Eskubaloi Taldea. Urte horietan zehar gorabehera ugari bizi izan ditu: Herriko Plazan entrenatzetik La Granja kiroldegian aritzera pasa dira, eta jokalari kopuruak behera egin du azken urteetan. Hala ere, aurrera jarraitzeko indarrekin daudela adierazi dute taldeko kideek.

ERREDAKZIOA I
Aimar Gutierrez

Laudioko La Granja kiroldegian entrenatzen dute taldeko kideek. Argazkia: aiaraldea.com

Astean hirutan igotzen dira Laudioko La Granja kiroldegira Laudio Eskubaloi Taldeko jokalariak. Hamalau taldekide dira gaur egun. Azken urteotan igotzen joan da jokalari kopurua eta garai ilun batzuen ondoren berriz doa indarra hartzen, baina, gure eskualdeko kirol gehienek bezala, futbolaren itzalari egin behar dio ihes.

Duela 38 urte sortu zen Laudio Eskubaloi Taldea, hasiera guztiak bezala ilusioz beterik. Herriko plazan ekin zieten lehenengo entrenamendu eta partidei. Plazatik Laudioko Institutuko jolastokira pasa ziren eta, azkenik, La Granja udal kiroldegira heldu ziren. Urte hauetan zehar asko izan dira Laudioko eskubaloi taldearen lorpenak eta hainbatetan irabazi egin dute liga. Azkenaldian garaipen kopuruak behera egin badu ere jokalarien hitzetan gauza sekundarioa da hori; eskubaloia talde kirola dela diote eta garrantzitsuena hori dela: laguntasuna sustatzea.

Momentu zailak pasa ditu eskubaloiak Aiaraldean. Eskualdean zeuden talde asko desagertu egin dira. Laudio Eskubaloi taldea da irauten duen bakarra eta, hala ere, talde laudioarraren historia ez da beti erraza izan. Arabako taldeen aurka jolasten hasi ziren baina talde gutxi zeuden lurraldeko ligan eta zailtasunak zituzten talde askoren aurka jokatzeko, batez ere horretarako urrunera bidaiatu behar zutenean, Logroñora adibidez. Bizkaiko ligara pasa ziren orduan. Bizkaiko ligara pasa baino urte bat lehenago hiru jokalari biltzen ziren soilik entrenamenduetan.

Eskualdeko kluben desagertzeak ere ez zion onik egin Laudioko Eskubaloi Taldeari, entrenatzaileen hitzetan; "Amurrioko kluba desagertu zenean ez genuen jokalari gorakadarik nabaritu Laudion, pare bat edo etorriko ziren talde hartatik baina ez gehiago". Egia da, Amurrioko taldea desagertu zenean jokalarien gehiengoak Gasteizera jo zuen. Oraindik ere inguruko herrietan ez da eskubaloiaren grina piztu eta Amurrioko jokalari bat baino ez dute Laudioko taldean.

Emakumeen presentzia oraindik ere murritza da. Eli Pinedo bezalako eskubaloi jokalari sonatuak eman dituen eskualde honetako eskubaloi talde bakarrak neska gutxi dauzka mistoak diren beheko kategorietan. Boladaka doala dirudi: aurreko urteetan neska ugari izan dira baina taldea utzi dute.

Amurrion zegoen taldea desagertu zenean Laudiokoa bilakatu zen Aiaraldeko eskubaloi talde bakarra.

Haurren taldea da indartsuen hazten ari dena: 20 jokalari dira, eta horietako hiruk Arabako Selekzioan jokatzen dute. Emakumeen presentzia aldiz, murritza da taldean.

Dirurik ez

Eskubaloi talde laudioarrak duen oztopo handienetariko bat kontu ekonomikoa da. Ez da erraza horrelako talde bat aurrera eramatea, eta taldekideak kexu dira futbolak jasotzen dituen diru-laguntzez. Taldekideek euren poltsikotik ordaindu behar dute jolasteko beharrezkoa den fitxa, arropa eta kanpora jokatzera joan behar direnean egiten dituzten bidaiak.

Babesleak aurkitzea ere ez dela batere erraza diote. Aurreko urteetan txosna bat jarri izan dute San Pedropeko jaietan diru apur bat ateratzeko helburuarekin. Diru-laguntzak alde batera utzita, Laudio Eskubaloi Taldeak dituen instalazio eta materialarekin gustura daude taldeko kideak, zelaia bere baldintza onenetan ez badago ere.

Arazo eta oztopoak alde batera utzita, aurrera doa Laudio Eskubaloi Taldea. Gaur egun belaunaldi errelebo batean dago sartuta eta hiru kategoriatan ditu taldeak: kimuak, haurrak eta seniorrak. Eskubaloiak, baina, ez dizkio inori ateak ixten eta bitarteko kategorietako jokalariak ere badira, seniorren taldean jolasten duten kadeteak, adibidez.

Haurren taldea da indartsuen hazten ari dena. 20 jokalari inguru dira, horietatik hiruk Arabako Selekzioan jokatzen dute, eta urtero handitzen doa kopuru hori. Gaztetatik motibatu behar dira haurrak, diotenez "adin konkretu batera heltzean normala delako interesa galtzea." Kirol honekiko grina pizteko ekintza ugari antolatzen dituzte: gurasoen kontrako partidak, inauterietan mozorrotuta jolasteko aukera...

Helburua argia da, eskubaloia euren eguneroko bizitzako pieza inportante bihurtzea; kategoria nagusiagoetako jokalarien hitzetan eskubaloiak lagunartean jokatu eta momentu oso onak pasatzeko aukera ematen baitu. Eskubaloiaren munduan murgildu eta gozatu nahi duen edonork entrenamendu batera bertaratzea baino ez du.

+info: Laudio Eskubaloi Taldeari buruzko bideo-erreportajea

Julen
Reketa
MENDIZALEA

_Helmugari so

Ekialdetik mendebaldera

Iragan barikuan, Ossau bailararen Portalet mendatearen bide bazterrean autoa utzi eta bat-batean bizikletarekin bi neska bat hurbildu zen . Itxura berezia biek: bizikleta, beltza klasikoa, hirietan erabiltzen direnetakoa, eta neskaren irudia mugimendu alternatibokoa. Pombie aterpera abiatu zen oinez eta nik berriz, Arremoulit aterpera igotzeko bidea hartu nuen.

Hurrengo egunean Arrius lepotik behera nindoala zast, neska aldapa gora.

Udazkeneko arratsalde eguzkitsua aprobetxatuz zer egiten zuen inguru horretatik kontatzen hasi zen . Alemaniarra jatorriz, bere aurreko ohiko bizimodua utzi eta furgoneta zahar bat etxe ibiltari, bere bizitzaren bidaiari aurre egiten zeramala bi urtez. Nahiz eta gaztea izan, nazioarteko enpresa batean urte batzuk lan egin ostean, merkataritza munduak bizimodua baldintzatu eta itotzen ari zela ohartzean aldaketa sakona gauzatzea erabaki zuela bere bizitzaren lemari so eginez.

Oraingo bizimodu ibiltari alternatiboa bai (herrialde bat ezagutu; bertan egon; aldirozko lana egin sosak edukitzeko) baina baita arduratsua ere eguneroko egoeren gazi-gozoak onartzea dakarrelako.

Kontakizun hau ez da agian esanguratsua guztiontzat baina nik uste askok pentsatzen dugula noizbait beste bizimodu batean, bai norbanako bezala, edo herri bezala. Gure bizibidea aukeratzea ez al da gure erabakia?

_kirola

ATLETISMOA:

Geraxane Ussia FC Barcelona atletismo taldearekin arituko da

Geraxane Ussia FC Barcelona atletismo taldearekin arituko da datorren denboraldian Zaragozako Simply-Scorpio taldea utzi ostean.

Bartzelonako kluba kirolari laudioarrarekin jarri zen harremanetan, Geraxanek haiek egindako eskaintza espero baino askoz hobea zela ikusita onartzea erabaki zuen.



MENDIZALETASUNA:

Gorobel ibilaldiaren 28. edizioa azaroaren 2an izango da

Azaroaren 2a, igandea. Hori da Mendiko Lagunak-eko kideek aukeratu duten data Gorobel ibilaldiaren 28. edizioa egiteko. Bi ibilbide egongo dira: txikia (28 km.) eta handia (36 km.). Parte hartu nahi dutenek aurretik eman beharko dute izena derrigor, mendi taldearen egoitzan.

MENDI LASTERKETA:

Zuriñe Frutos eta Pello Moreno Euskal Kopan sailkatu dira

Zuriñe Frutos artziniegarra eta Pello Moreno laudioarra Euskal Koparako sailkatu dira, igandeko lasterketan lortutako emaitzei esker.

Frutosek 3. postua eskuratu du kategoria orokorrean. Morenok, berriz, lehen postua lortu du Junior kategorian.

TXIRRINDULARITZA

"Frantziara salto egitea apustu polita izan da niretzat"

JON LARRINAGA (Lezama, 1991) GSC Blagnac talde frantziarrean arituko da datorren urtean, Euskadi Fundazioaren taldean egon eta gero.

ERREDAKZIOA I Gentza Garcia

Nondik iritsi zitzaizun Frantziara joateko eskaintza?

Entrenatzaileak e-posta bat bidali zidan hurrengo urterako nirekin kontatu nahi zuela esanaz. Jarraian Donostian elkartu ginen eta kontratua zehaztu genuen, urtebeterako hasiera batean, ikusiko dugu ostean.

GSC Balgnac taldearen parte izanda, beraz, Frantziara joan beharko zinateke entrenatzera...

Ez, bertara lasterketetan parte hartzeko joango naiz soilik, gainontzekoa orain arte bezala egiten jarraituko dut, etxean entrenatzen, noski.

Zer nolako itxura dauka denboraldiak talde berri baten parte izanda?

Fitxaketa onak egin dituzte, horietako zenbait ezagutzen ditut, eta guztion artean talde lehiakorra egingo dugula uste dut. Xederik eta garrantzitsuena Frantziako Kopa izango da, gainontzeko itzuliak orain arte egin ditudanen ia berberak izango diren tartean.

Zein izango da zure helburu pertsonala denboraldi berrirako?

Uste dut Frantziako lasterketak orokorrean nire egoera fisikorako egokiak direla; ez baitituzte portu handiko guneak, adibidez. Orokorrean maila ona ematea eta erakusleiho bikaina den aukera honi probetxua ateratzea dut xede.

"Fitxaketa onak daude, eta guztion artean talde lehiakorra osatuko dugulakoan nago"

"Xederik garrantzitsuena Frantziako Kopa izango da"

Tarteko pauso bezala ikusten duzu beraz GSC Blagnac-en egotea?

Afizionatuetan Espainia mailan oso aukera gutxi daude eta zer esanik ez Euskal Herrian. Niretzako apostua izan da Frantziara salto egitea eta momentuz aukera polit honetan sartuko naiz buru-belarri.

Entrenamendu pertsonalak aldatuko al dituzu?

Berdin entrenatzen jarraituko dut, iazko denboraldirako bezalaxe.

Oso ezberdinak al dira hemengo, Aiaraldeko, eta topatuko dituzun Frantziako aldapak?

Ez, azken finean ingurua antzekoa da eta, esan bezala, ez dago aldapa handiegirik izango ditudan lasterketetan, baita lautadak ere, akaso gure ingurunean gutxien topatzen ditugunak. Antzeko lurraldea da, azken finean.

Argazkia: Euskadi Fundazioa

Kategoria ugari eta lehia gogorra Laudioko IV. Ziklokross Txapelketan

ERREDAKZIOA I Endika Arribas

Laudioko VI. Ziklokross Txapelketa egingo da Laudion azaroaren 1ean. Urtero bezala SC Llodiana elkarteak antolatuko du, eta Laudioko udako igerilekuan eta Ellakuri futbol zelai alboko gunean egingo da. Hainbat mailatako probak egingo dira, honako ordutegiekin: 09:00etan masterrak (40, 50 eta 60 urte bitartekoak), 10:00etan master 30, 11:00etan gizon eta emakume kadeteak, 12:10ean gizonezkoen juniorra, elitea eta emakumezkoen juniorra. Azkenik, 13:15etan eliteak, 23 azpikoak eta gizonezkoen seniorrak lehiatuko dira.

Ibilbide gogorra da Laudiokoa. Laburra den arren gorabehera asko aurkitu ditzakete parte hartzaileek, maila handia eskatzen duen lasterketa da. Aiaraldeko txirrindularien artean bi izen dira aipatzekoak: Julen Latorre amurrioar jubenila sasoian dator, pasaden asteburuan MTBko Diario de Navarrako openean irabazi eta gero. Gotzon Martin orozkoarra gizonezkoetan junior mailan arituko da, Ponferradako errepideko mundialetik etorri berri.

Ezin ahaztu pasaden urtean Aitor Hernandez-ek lasterketa hau irabazi egin zuela Egoitz Murgoitioren aurretik. Iazko txirrindulari esanguratsuenen artean Jokin Alberdi, Aitor Hernandez, Aketz Peña, Javi Ruiz de Larrinaga, Rocio Gamonal, Aida Nuño... Falta izango diren bi garrantzitsu Murgoitio eta Jonhatan Lastra dira. Lehena erretiratua dago. Bigarrena, berriz, Caja Ruralen amateur taldean dabil.

AMURRIOKO II. MENDI DUATLOIA. 90 parte hartzaile egon ziren iragan igandean Kuskumendi MBT taldeak antolatu zuen duatloian. 25 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten korrikalariek. Argazkia: aiaraldea.com

_Herriko plaza

_agurrak

Jugatxi

Hau da Jugatxi bere 3. urtebetetzean . Ondo pasa lagun eta familia artean zure eguna.

Zure gurasoak

Raquel

Zorionak Raquel zure 23. urtebetetzean.

Maite zaitugu!

Lujan

Beñat eta Oinatz

Zorionak Beñat 7. urtebetetzean eta zorionak Oinatz 5. urtebetetzean. Bihurriak izaten jarraitu.

Zuen familia

Irati

Segi ametsak ekintzaz idazten! Adinarekin bidea ez bazaizu ahazten poteoan elkartuko gara!

Maite zaitugu!

Zetistak

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera urriaren 31a baino lehen.

_#sexgatik (:><:)

Zer ezberdintasun dago transgenero eta transexual terminoen artean? (Irati)

Trans terminoak pertsona transgeneroak eta transexualak biltzen ditu. Transgeneroa genero ezberdina eraikitzen duen pertsona da, jendarteak esleitzen dionarekiko ezberdina. Bi transgenero mota ezberdintzen dira: transgenero femeninoa gizon biologiarekin jaiotzen den pertsona eta genero femeninoa eraikitzen duena da, emakumeei sozialki esleitzen zaizkien rolak hartzen ditu. Maskulinoa, berriz, emakume biologiarekin jaiotzea eta genero maskulinoa eraikitzea, gizonezkoei sozialki esleitzen zaizkien rolen bidez adierazten da.

Pertsona transexualak, ordea, euren gorputza aldatzeko ebakuntza egiten duten pertsona transgeneroak dira. Alde batetik, emakume transexualak daude, gizonetik emakumera dagoen trantsizioa. Bestetik, gizon transexualak, emakumetik gizonera dagoen trantsizioa. Eta azkenik, pertsona intersexualak, bi sexuetako ezaugarri biologikoekin jaiotzen diren pertsonak dira. Kromosoma eta genitalen arteko konbinazioak izaten dituzte. Ez dira sexu biologikoaren, arra edo emea, definizio bitarraren barruan kokatzen. Egun, transexualitatea buruko gaitz sailkatzen dute hainbat herrialdetan. Urriak 23, Trans despatologizazioaren eguna, gorputz eta nortasun aniztasuna ez da gaixotasuna!

(Bidali zure galdera sexgatik@aiaraldea.com helbidera!) **Julene Onaindia Garcia**

_denborapasak

		Ate inguru	▼		Harri mota	▼		Ugatza	▼		Barazki hostotsua				
		Euritakoa			Oldar			Alemaniako hiria							
		►			▼			▼			▼				
		Oñatiko elizatea	►												
		Hiribarneko trena													
		►													
Morroia, ezkutaria	▼		Itsasgizon	▼		Mutua	►							Administra-tzaileen lantoki	
❖ IRUDIAN			Tente			Guraso arra									
►		▼		▼		Zalantza partikula	►				Boroaren ikurra	►	▼		
						Bildots					Du, haiei				
Elizaren erakundea	►				▼		Umotu	►			▼				
Zati txiki							Intsektu mota								
►						▼		Zilbor	►						
								Jeltzaleen gaztetxoak							
Bokal mehea	►	Naukate	►					▼	Bokal errepikatua	►					
Gizon izena		Errepikatuz, txori mota							A birritan						
►		▼		Letoniako hiriburua	►				▼	Kontso-nantea	►				
				Potasioaren ikurra						Iodoaren ikurra					
Jarleku mota	►			▼		Trebe, abil	►			▼					

❖ Aiarako herria. Bertan daude Aiarako jaun-andre nagusien hilobiak.

Erantzuna ikusteko https://www.aiaraldea.com/users/denborapasak

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18

Maite duzula diozu, bere hitz mingarriei arrazoia aurkitzen diezu beti. Maite zaituenak ez dizu horrela hitz egiteko eskubiderik. Zugan dago jarrera hori aldatzeko ahalmena. Horrela hitz egiten dizunak baimena ematen diozulako da. Gelditu!

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20

Zein da bide egokia? Zer egingo lukete besteek? Onurak eta kalteak bilatzen dituzu aukera bakoitzaren aurrean. Baina zu zeu zara erantzun egokiena daukazuna. Norabide egokitik gidatu zaituen sen hori jarraitu, damutuko zara bestela!

HERENSUGE
03.21-04.20

Amak askotan esaten dizu irakurtzeko, zergatik? Liburuek islatzen dituzten giza arazoak edota bidali nahi dizuten mezua ikas dezazun. Ikasteko trebetasuna garatuko duzu horrela!

LAMIA
04.21 - 05.20

Ez zara inoiz konformatzen. Asetze falta horrekin gauza handiak lortuko dituzu. Hala ere, daukazuna baloratzen ikas ezazu. Esfortzu guztien osteko saria ospatzen ikasi behar da!

BASAJAUN
05.21 - 06.20

Begizkoa bota dizutela? Egia da azken aste hauetan lanaz gainezka ibili zarela. Horrek ez du esan nahi zure gaitasunak galdu edota kendu dizkizutenik. Saia zaitez zure eginkizunak besterik ez burutzen eta besteek egin ditzatela haienak!

BASANDERE
06.21 - 07.20

Ez iezaiozu eman lanean gertatzen ari zaizkizun gorabeherei garrantzia gehiegi. Lanean arrakasta lortzeko obsesioak maite zaituztenen bizitza asetzeko beharra ahaztera bultzatu zaitu. Lanak dirua emango dizu, jendeak ordea, bizia!

GAUEKOAK
07.21 - 08.21

Txikitan bizitakoak markatu zaitu guztiz. Pertsona gaiztoak badira inguruan, baina bizi izandakoa ikasbide bihurtuz jende jatorrez inguratu, ez izan bihotz zoragarri hori zabaltzearen beldur. Besteek haiena oparitu dizute dagoeneko!

JENTILAK
08.22 - 09.22

Bankua zara ala? zerbait musu -truk egiteko proposatzen dizutenean ezetza zure erantzuna. Diru balorea giza baloreengatik aldatzen hasi beharko zenuke, ekintza handienek dirua baztertzea lortzen baitute. Ez horrenbeste pentsatu, eta sentitu!

AKERBELTZ
09.23 - 10.22

Azkenaldi honetan indarrik gabe zabiltza. Esnatu, Kalimero ematen duzula! Pertsona bakoitzak bere arazoak ditu, saia zaitez behintzat pertsona positiboekin biltzen, koadrilako askok ez baitizute faborerik egiten. Alaitu aurpegi hori!

MARI
10.23 - 11.22

Gauza guztiek hasiera eta bukaera bat daukate. Bukaerak gogorrak izaten dira sarritan, baina gogora ekarri hasiera horiek eragiten dizuten zirrara gazi-gozoen sentipenak. Etorkizun ezjakina ezagun bagenu bizitza aspergarria izango litzateke!

ZIRIPOT
11.23 - 12.20

Zu bai sorgin ederra! Magia da egunero egiten duzuna eta sorginkeri horiekin liluratuta dituzu ingurukoak. Erabiltzen dituzun hitz sekretu horiek besteen gaitzak kanporatzeko ahalmena dute. Hegan egizu orain, haizea zure alde baitago!

SUGAAR
12.20 - 01.19

Azken asteetako osasun gorabeherek atzean barne gatazkak daude. Noiz hasi zen zure oraingo ahultasuna? Hausnartu, zuk daukazu ezinegon horren zergatiaren erantzuna. Askotan gorputzak gure buruhausteak baino ez ditu islatzen.

_irakurlearen txokoa

_agenda

10.23 OSTEGUNA

17:00 URDUÑA
IPUIN KONTALARIA
Dar-dar beldurra kentzeko Liburutegia

19:00 URDUÑA
HITZALDIA
Artzaintza Gorobel mendilerroan
Kultur Etxea

10.24 OSTIRALA

10:00 LAUDIO
ELKARTASUN AZOKA
XVIII. Azoka Solidarioa
Herriko Plaza

18:30 AMURRIO
UMEENTZAKO EKINTZA
Ipuin kontalaria
Gaztetxea

19:00 ARRANKUDIAGA
HITZALDIA
Jon Maia: erabakitzearen eskubidearen alde
Gizarte Etxea

19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Zer gertatzen ari da Kurdistanen?
Gaztetxea

19:00 AMURRIO
LIBURU AURKEZPENA
El geurrero de Kexaa, Jokin Carames egilearen eskutik
Kultur Etxea

19:00 OROZKO
LIBURU AURKEZPENA
Historia del abertzalismo virtual
Donibane Aretoa

10.25 LARUNBATA

09:30 TERTANGA
IKASTAROA
Nola eraiki lurrezko labea? Urtxintzaren eskutik Eskolan

11:00 URDUÑA
IBILBIDE KULTURALA
Urduña, historia bizi den lekua
Foru Plaza

13:30 LAUDIO
BAZKARIA
Irteera Arenaldera: Solastiarren urteurrena
Institutu aurretik autobusa

17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Maskara harrigarriak
Kultura Etxea

19:30 URDUÑA
DOKUMENTALA
"La voz de Iñaki"
Kultur Etxea

20:00 AMURRIO
ANTZERKI AMATEURRA
"Torito bravo"
Amurrio Antzokia

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Haginak, Mankaos, Lastland
Gaztetxea

10.26 IGANDEA

LAUDIO IBARRA XXXIV. MENDI IBILBIDEA

08:00etan abiatuko da 38 km-ko ibilaldia GOIKOGANE TALDEAK antolatuta.
Laudio, Goikogane, Kamaraka, Ganekogorta, Galarraga, Aretxaga, Pagolar, Luiaondo, Elorritxugane, Laudio
Aldai Plaza

08:00 LAUDIO
OXIGENOA EUSKARARI
Axtxiki
Laudio DBH

10:00 OROZKO
JAIA
XIV. Gaztaina Eguna
Zubiaur

12:00 AMURRIO
AURKEZPENA
Guk Bai taldea
Katekesi Aretoa

19:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Laudioko Musika Bandak ikasturtea hasiko du
Done Petri Eliza

10.29 ASTEAZKENA

16:30 LAUDIO
HITZALDIA
De lo que está bien a lo que a mí me viene bien
Kultur Etxea

18:30 AMURRIO
UDAL DEIALDIA
III. Tokiko Ekintza Planerako ekarpenak
Katekesi Aretoa

10.31 OSTIRALA

17:00 LAUDIO
JAIA
Halloween
4 zonaldetan

11.01 LARUNBATA

09:00 LAUDIO
LASTERKETA
IV. Ziklokros lasterketa
Ellakuri Zelaia

20:00 AMURRIO
ANTZERKIA
Yo soy la revolución
Amurrio Antzokia

00:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Akerbeltz
Sorgin Taberna

MIKOLOGIA JARDUNALDIAK

10.27 ASTELEHENA

19:00 **Emanaldi gastronomikoa**
Zubiko Etxea, Laudio

10.28 ASTEARTEA

19:00 **Gorka Urkijoren hitzaldia**
Zubiko Etxea, Laudio

10.29 ASTEAZKENA

19:00 **Alfredo Conderen ikus-entzunezkoa**
Zubiko Etxea, Laudio

10.30 OSTEGUNA

19:00 **Musika emanaldia**
Zubiko Etxea, Laudio

19:30 **Hitzaldia: Amanitak**
Kultur Etxea, Amurrio

10.31 OSTIRALA

19:00**Ikus-entzunekoa, Cristobal Burgos**
Zubiko Etxea, Laudio
19:00 **Emanaldi gastronomikoa**
Arabako Txakolinaren txokoa, Amurrio

11.01 LARUNBATA

17:30 **Perretxiko sailkapena**
Mikologoen egoitza Laudio

12:00 **Perretxiko sailkapena**
Frontoia, Amurrio

11.02 IGANDEA

10:00 **XXXIV. Mikologia erakusketa** Herriko Plaza, Laudio
12:00 **Azoka**
Larrinaga Kalea, Amurrio

11.02 IGANDEA

07:30 AMURRIO
MENDI IBILALDIA
XXXVIII. Gorobel Mendi Ibilaldia Juan Urrutia Plaza

ZINEMA

10.24 OSTIRALA

"80 EGUNEAN" OKONDOKO ESKOLA 19:00etan

10.25 LARUNBATA

"EL CORREDOR DEL LABERINTO" LAUDIOKO LHUI 17:30ean eta 20:00ean (3€)

10.26 IGANDEA

"RIO 2" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30ean

"MAIA ERLEA"
LAUDIOKO LHUI 17:30ean

"TARZAN"
AMURRIOKO ANTZOKIA 17:30ean (3,60€)

"EL CORREDOR DEL LABERINTO"
OROZKOKO DONIBANE ARETOA 19:00etan

"EL ABUELO SALTÓ POR LA VENTANA Y SE LARGÓ"
AMURRIOKO ANTZOKIA 19:30ean (4,80€)

10.27 ASTELEHENA

"EL ABUELO SALTÓ POR LA VENTANA Y SE LARGÓ"
AMURRIOKO ANTZOKIA 20:00etan (3,60€)

10.28 ASTEARTEA

"PELO MALO"
EMAKUME ZINEMA, LAUDIOKO LHUI 18:30ean

11.01 LARUNBATA

"BOY HOOD"
LAUDIOKO LHUI 17:30ean eta 20:30ean (3€)

_ezin galdu

GOROBEL IBILALDIA: XXXVIII. edizioa antolatu du Mendiko Lagunak taldeak. Azaroaren 2an Tologorri eta Eskutxitik, besteak beste, igaroko dira parte-hartzaileak. Izena emateko epea urriaren 30ean bukatuko da; 4 euro federatuentzat eta 6 federatu gabekoentzat.

HERRI GALDEKETA ARRANKUDIAGA-ZOLLON: Azaroaren 2an egingo dute erreferenduma jai giroan; Porrotx pailazoa, Etxarriko zanpantzarrak, futbol eta eskupilota partidak, Kun-kun batukada, Fita Fik taldea, aizkolariak eta DJ Bullek girotuko dute eguna.

Jimmy jazz gasteiz

URR 25 // LETZ ZEP
Tributo a Led Zeppelin + Jordi Sandalinas
20:45 (20 / 25 €)

URR 30 // ALFREDO PIEDRAFITA
'La estación perpetua' aurkezpena
20:45 (Sarrera doan)

URR 31 // ALBERT PLA & Diego Cortés
21:30 (15 / 18 €)

AZA 1 // NIKKI HILL
21:30 (12 / 15 €)

AZA 6 // MISHIMA
21:00 (12 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre higiezinen agentzia

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 125.000 €
53 m², 2 logela, bainugela, altzariz hornitua, kanpoaldera, gas naturaleko berogailua, negoziagarria.
Erref.: 167.522

ETXEA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 310.000 €
116 m², 2 logela, 2 bainugela, jakitokia, terraza, garajea, barbakoa, 250 m²-ko loralegia, bizitzera sartzeko prest.
Erref.: 167.469



PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 138.000 €
67 m², 4 logela, bainugela, balkoia, kanpoaldera, berogailua, igogailua, negoziagarria.
Erref.: 163.813

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 125.000 €
80 m², 3 logela, bainugela, sukaldea balkoiarekin, altzariz hornitua, trastelekua, negoziagarria.
Erref.: 167.346

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 142.000 €
63 m², 2 logela, bainugela, balkoia, altzariz hornitua, eraberritua, trastelekua, kanpoaldera, negoziagarria.
Erref.: 129.702

PISUA SALGAI URDUÑAN
Prezioa: 72.000 €
68 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldera, altzariz hornitua, eraberritzeko, trastelekua, negoziagarria.
Erref.: 152.893

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 150.000 €
80 m², 3 logela, bainugela, balkoia, igogailua berogailua, , eraberritua, trastelekua.
Erref.: 167.427

PISUA SALGAI ARTZINIEGAN
Prezioa: 132.000 €
60 m², 2 logela, bainugela, egongela tximiniarekin, terraza, berogailua, altzariz hornitua, garajea, trastelekua.
Erref.: 164.438



www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_kontra

aiaraldea

Iratxe Lopez de Arroyabe

"Gure ginebra egiteko erabiltzen dugun ura Nerbioi ibaiaren jaiotzatik hartzen dugu"

IRATXE LOPEZ DE ARROYABE (Gasteiz, 1979) Ginbail proiektuaren parte da. %100an Araban ekoitzitako ginebra da Ginbail. Amurrioko Acha destilategietan fabrikatzen dute, gero Espainiako Estatu osoan zehar banatzeko.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Zenbat gin-tonic edanak zenituzten Ginbail sortzearen ideia bururatu zitzaizuenean?

Kar, kar. Ez asko, egia esan... bazkaloste batean geunden eta oraindik ez ginen hasiak gin-tonicekin. Lagunarteko elkarrizketa informal batean sortu zen osoki Araban eginiko lehen Premium ginebra egitearen ideia. Horren ostean, Amurrioko Acha destilategiarekin kontaktatu genuen eta hainbat dastaketen ostean nahasketa bat aukeratu genuen, gaur egun Ginbail duen konposizioa dena.

Konposizio berezia, ez?

%100ean Arabakoa den ginebra bat izanik oso berezia da. Erabiltzen den ura Aiaraldeko Nerbioiko jaiotzatik hartutakoa da. Horrek izaera propioa eta oso pertsonala ematen dio.

Zein osagai erabiltzen dituzue?

Ginbail hamabi landarez osatua dago. Horietako batzuk oso bereziak dira: kanela, izpilikua, menta piperina, anis-belarra... eta laranja gozoa eta garratza.

Ginebra %100an arabarra dela diozue.

Bai, ginebra honen berezitasunik nabarmenena da %100ean arabarra den proiektu bat dela, hasieratik bukaerara: hiru ekintzaile gasteiztarren artean jarri dugu martxan proiektua. Fabrikazioa Amurrion egiten da, likoreak egiten eskarmentu handia duen eta Euskadiko zaharreneta-rikoa den lantegi batean. Etiketaren eta irudi korporatiboaren diseinua ere Gasteizen egin da, Tandem Creativas estudioan.

Ginbail hartzeko... tonika edo txupitoa?

Guk tonikarekin zerbitzatzea nahiago dugu, garratz ukitu batekin konbinatzeak ñabardura sakonagoak atzemateko aukera ematen duelako. Baina txupito moduan hartzeari ere ondo deritzogu. Ginebra hartzeko modu onena norberari gehien gustatzen zaiona dela uste dugu guk. Garrantzitsuena jendeak Ginbail edanez gozatzea eta errepikatzea da, berdin dio nola egin.

Eta non edan daiteke Ginbail bat?

Gaur egun, Ginbail honako zonalde hauetako zenbait lekutan topatu daiteke: Araban, Bilbon, Donostian, Nafarroan, Errioxan, Zaragozan, Bartzelonan, Gironan, Kantabrian, Asturiasen, Leonen, Valladoliden, Sorian, Segovian eta Cadizen. Hazten jarraitu nahi dugu, baina betiere oinak lurrean mantenduz. Ez dugu gure gain hartu nahi gure pertsonalitatea eta gure produktu-ideia galtzea ekarriko ligukeen proiekturik.

Irati
Marañon
Itzultzailea

_Leihotik

Zaindu maite duzun hori

Sartu, eta denboran ehun urtez atzera egin duzula sentitzen duzu. Burdina landuzko zutabeak, marmolezko salmahaia, zurezko detaileak...Ezin ederragoa da denda.

Lisboan egon zitekeen, Budapesten akaso, baina ez, etxetik gertu-gertu dago: Urduñako Foru plazan. Larrea gozotegiaz ari naiz, bai. Inguruotan, tamalez, antzinako oso denda gutxi gorde dira, eta horregatik da Larrea harribitxi bat. Eta ez soilik Aiaraldean, baizik eta Euskal Herri osoan.

Globalizazioak, erosteko ohitura berriek, bizimolde modernoek... betiko negozioen desagerpena ekarri dute. Ez gara konturatzen, antza, horrelako denda bat ixten den bakoitzean, unibertso txiki oso bat galtzen dela. Baina betiko negozioei eusteko, eta gure herrietako ausartek irekitzen dituzten denda berriek bizirauteko, ezinbestekoa da guk, herritarrok, horietan erostea.

Bilbora, Gasteiza, edo merkatalgune handietara jo aurretik, pasa zaitezte herriko dendetatik. Halaber, Larrea ezagutzen ez baduzue, joan zaitezte lehenbailehen. Denda ikusteaz gain, erosi hango gutiziaren bat. Krock bizkotxak, esaterako, zoragarriak dira.